


Iruña-Veleia epaiketaren kronika

Crónica del juicio de Iruña-Veleia

(2020-02-3>19)



D^a. ISABEL MARÍA DIEZ-PARDO HERNÁNDEZ, Magistrada-Juez

- 1** **Contra/Kontra:** ELISEO GIL ZUBILLAGA
- 2** **Abogado/a / Abokatua:** FRANCISCO JAVIER MARTINEZ DE SAN VICENTE CORRES
Procurador/a / Prokuradorea: JOSE IGNACIO BELTRAN ARTECHE
- 3** **Contra/Kontra:** OSCAR ESCRIBANO SANZ
Abogado/a / Abokatua: VIRGINIA URTARAN AGUIRRE
Procurador/a / Prokuradorea: PATRICIA SANCHEZ SOBRINO
- 4** **Contra/Kontra:** RUBEN MANUEL CERDAN CASILARI
- 5** **Abogado/a / Abokatua:** MARIA DE LOS ANGELES RODRIGUEZ BELTRAN
Procurador/a / Prokuradorea: COVADONGA PALACIOS GARCIA
R C Subsidiario/Erantzule zibil subsidiarioa: LURMEN S.L.
- 2** **Abogado/a / Abokatua:** FRANCISCO JAVIER MARTINEZ DE SAN VICENTE CORRES
Procurador/a / Prokuradorea: JOSE IGNACIO BELTRAN ARTECHE
Acusador particular/Akusatzaile partikularra: DIPUTACION FORAL DE ALAVA.
- 6** **Abogado/a / Abokatua:** FRANCISCO JAVIER VILLARRUBIA MILLAS
- 7** **Procurador/a / Prokuradorea:** MARIA MERCEDES BOTAS ARMENTIA

Juan Martin Elexpuru

Portadako irudia/ Imagen de la portada: Karlos Uruga

(Artxibo hau 2020ko urrian igo da academia.edu-ra / Este archivo se ha publicado en academia.edu en octubre de 2020)

Abstract

Iruña-Veleiari buruzko epaiketaren kronika eta epaiaren analisisia

Iruña-Veleiako aztarnategiko balizko faltsutzeagatik Eliseo Gil Zubillagaren aurkako epaiketa 2020ko otsailaren 3tik 19ra bitartean egin zen. Estaldura mediatiko zabala izan zuen, baina kazetarien objektibotasuna hutsaren hurrengoia izan zen aretoan gertatutakoa islatzeko orduan. Kronika gehienak oso partzialak izan ziren, gezurtiak ere bai zenbait. Lan honen egilea saio guztietara joan zen eta egunero argitaratu zituen bere *kronikak Iruña-Veleia, gezurra ala egia* blogean. Pdf honetara ekarri ditugu. Era berean, epaitegiak epaia eman zuenean, blog horretan bertan haren hainbat alderdi aztertu zituen.

Chronicle of the trial on Iruña-Veleia and an analysis of the judgment

The trial against Eliseo Gil Zubillaga for the alleged falsification at the Iruña-Veleia site was held from February 3 to February 19, 2020. It had extensive media coverage, but the journalists' objectivity when recounting what happened in the court room it was conspicuous by its absence. Most of the reports were extremely biased, some even fallacious. The author of this work attended all the sessions and published his reports each day on his blog *Iruña-Veleia, gezurra ala egia (Iruña-Veleia, lies or truth)*. We have transferred them to this pdf. In turn, when the court issued its sentence, an analysis of various aspects of it was carried out on that same blog.

Crónica del juicio sobre Iruña-Veleia y un análisis de la sentencia

El juicio contra Eliseo Gil Zubillaga por la supuesta falsificación del yacimiento de Iruña-Veleia se celebró entre los días 3 y 19 de febrero de 2020. Tuvo amplia cobertura mediática, pero la objetividad de los periodistas a la hora de reflejar lo sucedido en la sala brilló por su ausencia. La mayoría de las crónicas fueron extremadamente sesgadas, algunas incluso falaces. El autor de este trabajo asistió a todas las sesiones y publicó sus crónicas cada día en su blog *Iruña-Veleia, gezurra ala egia*. Las trasladamos a este pdf. A su vez, cuando el juzgado emitió la sentencia, realizó un análisis de sus diversos aspectos en ese mismo blog.



JAITSI / DESCARGAR: [Sentencia oficial Iruña Veleia \(Pdf\)](#)

Egilearen bloga / blog del autor: <https://blogak.goiena.eus/elexpuru/>

Eskerrik beroenak Tomas Elorza, Roslyn Frank eta Karlos Uragari itzulpengintzan eta beste gauza batzuetan eskainitako laguntzagatik / Mi agradecimiento a Tomas Elorza, a Roslyn Frank y a Karlos Uraga por su ayuda con las traducciones, etc.

Aurkibidea/Indice

1. Epaietaren kronika egunez egun (euskera)	4
2. Sententzia aztertzen (euskera)	26
3. Crónica del juicio día a día . . (castellano)	39
4. Analizando la sentencia (castellano)	62
5. Nazioarteko hamalau adituen iritzi-artikulua epaietaz / Artículo de opinión sobre el juicio de catorce expertos internacionales (euskera, castellano, english)	74



1.- Epaiketaren kronika egunez egun



(1)

Iruña-Veleia epaiketaren lehen astea: hedabideetan nekez aurkitzen ditugun 10 berri

Data: 2020(e)ko otsailaren 8a

1. Gilen defentsak epaiketa balio gabe uztea eskatu zuen hasieran, grafitoen zaintza-katerik ez delako egon, piezak kereila jartzailearen (Arabako Foru Aldundia) esku egon direlako gaia judizializatu zenetik, eta hainbat eskutatik pasatu direlako. Baina epaileak ez du epaiketa deuseztatu nahi izan.
2. 2007an aztarnategiko lana utzi eta 2009an Escribano eta Gil salatu zituzten hiru arkeologoen beren deklarazioetan esan dute grafitoak benetakoak zirela pentsatzen zutela lanean ibili ziren bitartean. Grafitoen aurkezpen publikoen ondoren, Apellanizek eta Crespok elkarrizketak egin zituzten Arabako bi irrati ezberdinetan, non aurkikuntzen ekarpen distiratsuak goraipatu zituzten. Berjonek esan zuen ez zela iritziz aldatzen hasi 2009an Batzordearen txostenak irakurri arte.
3. Aste honetan deklaratu duten pertsonetarik inork ez du esan grafitoak faltsuak zirela susmatzen zuenik Lurmenentzat lan egiten zuten bitartean.
4. 1.110 grafito inguru daude katalogatuak ezohikoen eta arrunten artean (400 bat berezi eta 700 arrunt). Horietatik %20 *in situ* koordinatuak (berezien eta arrunten proportzioa berdintsua da). Arkeologoen adierazpen gehienek diote ez zituztela ikusi ez ezohikoak eta eta ez arruntak, banaka batzuk kenduta.
5. Gehienek deklaratu dute piezak buztin itsaskorrez eta askotan kostraz inguratuak zeudela eta oso zaila zela inskripzioak ikustea.
6. Gutxienez hiru ezohiko grafito ikusi dira lurretik irteten edo handik denbora gutxira, horietako bat euskarazkoa. 1.- Abecedario osoa, 15542, (Henar Cebrián eta Daniel Valloren adierazpenak). K, Y eta Z letrak ditu, ezinezkotzat joak Batzordeko filologoen aldetik. 2.- Xabier Reparaz arkeologoak esan zuen *Leonidas* (Esparta-ko erregea) jartzen duen ostraka aurkitu zuela. 3.- Hilobiratzeko baten gainean zegoen platera, IAN / VAN ZVTA, 15565, jartzen duena, goizean aurkitu zen eta eguerdian garbitu jende askoren aurrean.
7. Jose Manuel Tarriño arkeologo eta marrazkilariak, balizko Descartes marrazteko ardura zuenak, inskripzioa argi bereziaz eta hamar amentoko lupaz ikuskatu ondoren MISCART jartzen duela deklaratu zuen eta ez Descart.

8. Jose Manuel Tarriño berak deklaratu zuen hainbat esku ezberdinek eginak direla grafitoak. Oso marrazki zehatzak daudela, emakume-aurpegiak miniatuak adibidez, benetako artelanak, aurpegiko keinuak ere adierazten dituztenak. Badira, berriz, oso sinpleak eta baldar samarrak.
9. Lurmeneko kanpo administrariak, Iker Filloyk, deklaratu zuen Lurmenek Euskotrenekin sinatutako hitzarmena ez zegoela inola ere emaitzen menpe. Lurmen solbentea zela ekonomikoki. Auditoriak egiten zitzaizkiola urtero enpresari bere borondatez. Euskotrenekin zuen hitzarmena ez zela bere diru-iturri bakarra. Baita deklaratu zuen Cerdani oso-osorik ordaindu zitzaiola fakturen kopurua (epaiketan erakutsi ziren fakturak). Beraz, ez zen dirurik geratu Lurmenen eskuetan, Aldunditik jaso zuena eta Cerdani ordaindu zitzaiona kopuru bera izan baitzen. Ondorioz, ez zen estafarik egon, Gili egozten zaion delituatariko bat. Bitxia da ez zela kazetaririk agertu egun horretan eta administrariaren agerraldia ez dela hedabideetan islatu, inportantzia handikoa izan arren.
10. Bitxikeria gisa, hiru arkeologoetariko batek gogoratu zuen elefante baten marrazkia agertzen dela grafito batean (11415), eta hori ezinezkoa dela paraje hauetan. Kasualitatez, egun berean Pello Eizagire ikerleak Ama Ata blogean, 1886. urtean Iruña-Veleian eginiko aurkikuntza bati buruz diharduen agiri bat erakusten zuen, non elefante bat agertzen den txanpon batean, iruzkin honekin: “Anverso. CAESAR. Elefante comprimiendo con los pies una serpiente”.



Escribanoren txantxa, manipula ezazu asko gelditzen da-eta.

Gertaerak: 2005eko udan, Oscar Escribanok zeramika zati bat hartu zuen, bertan Veleia hitza idatzi zuen, atzealdean Txapel ezizenarekin sinatu zuen (alderantziz, «Ispiluan» lepa) eta garbitzeko unean zeuden piezen artean sartu zuen. Berak atera zuen ikuztegitik, taldean zirrara handia eraginez, oraindik ez baitzen izen hori agertu aztarnategian. Biharamunean Escribanok txantxa bat izan zela adierazi zion taldeari. Zuzendaritzaren haserre eta liskarra izugarria izan zen, Gilek eta Filloyk hura berehala kanporatzea ere planteatu zuten. Bizpahiru egun egon zen kanpoan, eta azkenean ez

zen kanporaketa gauzatu. Gertaera isolatu bat bezala hartu zen, gustu txarreko txantxa bat, baina txantxa bat azken finean. Zoritxarrez giro jakin batzuetan gertatzen diren txantxak, baita arkeologian ere.

2009an kasua judizializatu zenean, indusketa utzi zuten hiru arkeologoek, Berjonek, Apellanizek eta Crespok, broma salatu zuten epailearen aurrean, eta diputazioak eta fiskaltzak salaketa jarri zuten Escribanoren aurka, «Ondareari kalte egiteagatik». Escribanok epailearen aurrean deklaratu zuenean, 2009an, aitortu zuen txantxa egin zuela, sumarioan ageri den bezala. Gertaera ezaguna egin da ordutik, eta foro ugaritan eta Barandiaran eta Elexpururen liburuetan argitaratu da, besteak beste.

Zigor eskaeraren ordua iristen denean, diputazioak hiru urte eta bederatzi hilabete eskatzen ditu, eta fiskaltzak hiru urte Gil eta Escribanoren aurka, eta bien artean ordaindu beharreko 286.000 euroko isuna. Apenas aipatu den xehetasun txiki bat azpimarratu beharko litzateke: Escribanori, txantxagatik ez ezik, Gilekin batera ezohiko grafitoen egilekidetza ere leporatzen diote.

Epaiketaren aurretik, Escribanok eta bere defentsak fiskaltzarekin negoziatzen ari dira zigorraren beherapen nabarmen bat: urtebeteko kartzela zigorra geratzen zaio, eta egun bakoitzeko sei euroko isuna, urtebetez, gehi 600 euroko isuna, «Pieza bat kaltetzeagatik». Akusazio partikularrak ere onartzen du tratua. Azpimarratu behar da Escribano grafitoen faltsifikazioaren egilekidetzatik ere salbuesten dutela bat-batean. Une horretatik aurrera, Eliseo Gil da akusatu bakarra.

Nola kontatu den: epaiketaren hasieraren titular nagusia izan da Escribanok aitortu duela zalantzan jarritako grafitoetako bat faltsutu zuela, eta horrek sekulako bonbazoa ekarri duela, inork ez baitzuen imajinatzen. Gezurra, ez baita «zalantzan jarritako grafitoetako bat», eta gertaera artxiezaguna zen. Iruzkina orokorra izan zen bat faltsutu badu gehiago faltsutu ahal izan dituela; akusatu gisa ez zegoela egia esatera behartuta, baina orain lekuko izatera pasatzen ari dela, behartuta dagoela, eta ikusmin handiz espero zela haren agerraldia, behin betikoa izan zitekeena kasua ebazteko. Escribanok asteartean deklaratu zuen lekuko gisa eta ez zen horrelakorik gertatu. Escribanoren txantxaren inguruko manipulazioa eskandalagarria izan da. Komunikabide nahiko objektiboek ere erori dira zuloan; ezjakintasunagatik izan dela pentsatu nahi dugu.

(2)

“Ez du RIP jartzen”, esan dute aho batez Paloma López eta Isabel Ortizek, Arabako Foru Aldundiko Zaharberritze Zerbitzuko bi teknikariak

Data: 2020(e)ko otsailaren 11a

Gaurko saioan epaiketak 180 graduko bira eman du. Arratsaldeko hirurak aldera amaitu da, eta titular askorako eman du. Lehenik eta behin, Paloma Lópezek eta Isabel Ortizek, Arabako Foru Aldundiko Zaharberritze Zerbitzuko teknikariak, egindako adierazpenak laburbilduko ditugu. Haien eskuetatik pasatu dira ezohiko grafitoetako asko. Bien adierazpenak oso antzekoak izan dira. Ez ditugu aipatuko ordena kronologikoan, baizik eta ematen diegun garrantziaren arabera.

Grafito zehatzei buruz

1. Biak bat etorri dira ez duela RIP jartzen, baizik eta hiru marra direla, santutasunaren ikurra, I-Vko beste pieza kristau batzuetan agertzen direnen antzekoak. Zaharberritzen ari ziren pieza tratatu zuten, mikroskopioz begiratu zioten, eta biak ondorio horretara iritsi ziren inolako zalantzarik gabe. Urrutitik ikusita RIPen inpresio optikoa eragiten du, alboetan dauden altxatuen ondorioz. Antzeko beste altxatze bat dago grafitoaren beste alde batean. Argazkiak eta birsorkuntza bat ekarri dituzte (ikus irudiak dokumentuaren amaieran)
2. Arkeologoek ehorzketaren gainean aurkitu zuten platera ere aipatu dute, IAN/VAN ZVTA euskerazko testua duena eta 15565zkoa (goiz batez lurretik aterea eta eguerdian garbitua hainbat pertsonaren aurrean). Erabileragatik oso gastatua zegoela adierazi zuten, hainbat puskatan zegoela, paretak oso hauskorrak zirela. Abokatuak Isabel Ortizi galdetu dio ea inskripzioa berriki egin izan balitz begiratu batez ikusiko litzatekeen, eta baietz erantzun du, faltsua balitz igarriko litzatekeela eta bere ustez grafitoa zaharra dela. Abokatuak ere galdetu dio ea prozesatzeko orduan buztingilearen marka aurkitu zuten eta erantzun dio triangelu bikoitza aurkitu zutela, zigilua izan zitekeena. Marka hau ez zuten arkeologoek aurkitu.
3. 14468, adreilu gaineko grafitoak, VIIL(II)I(A) GORI / VIILIII NOVVA / VI(...)(A)III, tokiaren mapa bat adieraz lezakeena, zaharberritzera eraman zenean konkrezio asko zituen, eta letrak igartzen ziren arren, ez zen ondo irakurtzen. Lan zehatza egin zuten inskripzioa ondo ikus zedin. Defentsako abokatuak aurrekoan egindako gauza bera galdetu zuen, inskripzioa orain dela gutxi egin balitz ea begiratu batez nabarituko litzatekeen, eta baietz erantzun du eta jarraian bere ustez grafitoa zaharra dela erantzun dio.
4. Defentsak OVN MIA VINCIT / AMOR12396hezur gaineko grafitoa erakutsi die teknikariei, eta galdetu die ea hezurretako letra batzuen gainean dauden hutsuneak landareen sustraiek eragindako markak izan daitezkeen. Baietz erantzun dute, nahiko ohikoa dela hezurretan horrelako arrastoak aurkitzea. Idazkuna berria balitz ea begiratu batez igarriko litzatekeen galdetu dio, eta baietz erantzun du, eta bere ustez grafitoa zaharra dela.

Garbitu gabeko zeramikazko piezen 20 kaxe buri

2007ko amaieran, eta susmo giroaren ondorioz, aztarnategian pieza gehiago ez garbitzeko agindu zuten Arabako Aldunditik. Zaharberritzaileen eskutara zeramikaz eta abarrez betetako hogeita bat kaxa heldu ziren, garbitu gabe. 2008ko uda-udazkenean hasi ziren haiek garbitzen. Bi kaxa garbituta zeramatzatela, grafito berezi bat agertu zen, hegazti baten marrazkia, agian uso batena, ahoan galburu bat zuena (kristau ikurra, gehituko dugu guk). Aurkikuntzaren berri eman zioten diputazioari (Kultura diputatua, etab.), **eta berehala eman zieten gehiago ez garbitzeko agindua**. Euren ustez, zeramika horiek garbitu gabe daude (ez zaigu argi geratu non dauden gaur egun kaxa horiek).

Alderdi orokorre buri


1. Bi zaharberritzaileak aztarnategira joan ziren taldeari errieta egitera pieza asko garbituegi iristen zirelako zaharberritzera eta nola egin behar zuten azaltzera. Nahiko praktika arrunta dela nabarmendu dute, eta aldi berean sarri jokatu behar izaten dutela era honetara indusketa askotan.
2. Plastikozko hortz-eskuilak erabiltzen zirela ikusi zuten, ez zuten metalezko eskuilarik ikusi. Paloma Lópezek adierazi zuen zenbait lekutan zurda metalikodun pintzelak erabiltzen ikusi izan duela. Eurek, azken baliabide gisa, altzairuzko bisturia erabiltzen dute, konkrezioak beste modu batera ezabatu ezin dituztenean. Grafito bereziekin bisturiak erabili izan dituzte. Beste une batean metalen kutsadurarik egon ote den galdetuta, adibidez aztarnategian bertan, indusketatik ateratako metalekin kontaktuan egoteagatik, baietz erantzun dute. Edo beste edozein unetan: analisiak egiteko orduan, objektu metalikoren batekin kontaktuan egoteagatik, eta abar.
3. LURMEN indusketaren buru egon zen urteetan ez zuten inoiz zalantzarik izan grafitoen egiazkotasunari buri.
4. Ertzaintzak bi teknikariei egindako galdeketari dagokionez, adierazi dute agenteak faltsutasun-zantzuei buri baino ez zuela galdetzen, inoiz ez egiazkotasun-zantzuei buri, eta hori oso harrigarria egin zitzailela.

Amelia Baldeón Arabako Arkeologia Museoko zuzendariaren adierazpena

1. Gorrochategui astelehen arratsaldean aurkeztu zen (2006/06/19) (zera gehituko dugu: grafitoak benetakoak zirela Knörrekin eta Gilekin batera egin zuen prentsaurrekotik lau egunera) grafitoen benetakotasunari buruzko zalantza handiak adierazten zizkion gutun luze batekin. Katedradunak edukia azaldu zion. Baldeonek adierazi du gutuna tiraderan itxita egon zela Batzordea osatu arte. Akusazioko abokatuak galdetu zion zergatik ez zien pertsona gehiagori gutunaren edukiaren berri eman, eta Baldeonek adierazi zuen komite zientifiko txikian euskara aditua Henrike Knörr EHUko Euskara katedraduna zela, eta hark grafitoen benetakotasunaren uste osoa adierazten ziola, eta Gorrochategui Indoeuropar katedraduna zela, ez euskararena.
2. Ramon Teja Santanderreko Unibertsitateko irakasleak, José María Álvarez Méridako Museoko zuzendariak eta beste hainbat lagunek bisitatu zuten aztarnategia, Eliseo Gilek gonbidatuta. Akusazioak galdetu du ea pertsona horiek benetakotasunari buruzko zalantzak adierazi zizkieten. Ezetz aitortu du;

hori bai, aurkikuntzekin harrituta zeudela, eta etorkizun oparoa iragartzen ziotela aztarnategiari.

3. 2007ko urtarrilean Berjón eta Apellaniz, aztarnategitik alde egin ondoren, Baldeonen bulegoan aurkeztu ziren. Bisitaren xedeaz galdetu dio. Bere zerbitzuak eskaintzera etorri zirela erantzun du, beren enpresa arkeologikoa sortzera zihoazelako. Lurmenen metodo arkeologikoagatik kexarik aurkeztu ote zuten galdetu diote, edo grafitoen benetakotasunari buruzko zalantzak agertu ote zituzten, eta ezetz erantzun du, "Inondik inora".
4. Baldeonek adierazi du Batzorde Aholkulari Zientifikoak asko presionatu zuela. Ez zutela Batzar Nagusietan egin zen prentsaurrekora gonbidatu. Galdetu diote ea Lopez de Lacalle diputatuaren aginduz Arkeologia Museoko zuzendari kargutik kendu eta Armagintza Museora bidali zuten grafitoen inguruan zuen jarreragatik. Epaileak esan du galdera pertsonala dela eta ez dagoela erantzutera behartuta. Baldeonek dio baietz, erantzun nahi duela. Eta enfasi handiz erantzun du: BAI!



(3)

Ertzaintzako bi grafologok berretsi dute Grafologiak ez duela balio zeramikan edo egurrean grabaturiko idazkunen egiletza zehazteko.

Data: 2020(e)ko otsailaren 12a

Grafologia da Eliseo Gili faltsifikazioa leporatzeko akusazioari geratzen zaion bitarteko bakarra. Gaurko saioan Ertzaintzako Grafistika eta Dokumentoskopia Saileko bi agentek deklaratu dute. Sail honek 2013an egin zuen gaiari buruzko txostena, eta gaurkoan bi agenteek berretsi besterik ez dute egin orduan ebatzitakoa. Beraz, gaurko pusketak lotzen saiatzea baino interesgarriagoa iruditzen zaigu orduko txostenaren zati esanguratsuenak hona ekartzea, galdeketa kaotiko samar baten puskekin puzzlea osatzen ahalegintzea baino.

OTSAILAK 12: Ertzaintzako bi grafologok baieztatu dute grafologiak ez duela balio zeramikan edo egurrean egindako inskripzioen egiletza argitzeko

«Grafitoen eta letrina inskripzioen egiletza polizialki argitzen saiatzeko, 2013an instrukzio-epaitegiak txosten perizial bat eskatu zion Ertzaintzaren Polizia Zientifikoaren Unitateko Dokumentoskopia eta Grafistika Atalari. Hala ere, 2013ko azaroaren 19an, Dokumentoskopia eta Grafistika Ataleko buruak idazki bat bidali zion epaitegi eskatzaileari, eta, horren bidez, «Eskatutako azterlana egitea ezinezkoa zela» jakinarazi zion, arrazoipide hauek oinarritzat hartuta:

- Zalantzazko ebidentzien euskarria ez da papera edo antzeko materiala, baizik eta zeramikazko euskarria; eta esleitutako ebidentziaren kasuan, zur lakatuzko erromatar letrina. Bi euskarri motetan erresistentzia desberdina izan daiteke tresnak zulatzen duenean, eta karaktereen artean dibergentziak egon daitezke euskarrien konposizio desberdinagatik.
- Grafitoak egiteko erabiltzen den tresna eta gaur egun erabili ohi dena desberdinak dira; ez da tinta zabaltzeko elementu bat, egungo boligrafoak bezala, ez eta esprai edo pintura-brotxa bat ere; aitzitik, euskarria zulatzeke tresna erabiltzen da.
- Aurreko bi paragrafoetan azaldutakoaz gain, erabilitako alfabetoa morfologikoki gaur egun erabiltzen denaren desberdina da, eta, beraz, garai hartan erabiltzen ziren alfabetoen morfologia oso ondo ezagutu beharko litzateke.
- Tresna bat hainbat euskarritan (zeramika eta zur lakatua) zulatuz erabiltzearen ondorioz, ezinezkoa da peritu-azterketa grafistiko baten oinarritzko alderdiak aztertzea, hala nola abiadura, presioa, ereduak eta erasoak eta ihesbideen azterketa.
- Era berean, kontuan hartu behar da horrelako azterketarik ez egoteak erabilitako metodo zientifikoa ez baliozkotzea dakarrela; izan ere, arestian adierazitako guztiagatik, ez dira aplikatzekoak perizia kaligrafikoaren oinarritzko lege batzuk; beraz, zalantzan jartzen da azterketa kaligrafikoaren eskaera bat izango litzatekeen edo beste azterketa-mota bat izango litzatekeen, eta, beraz, teknika berriak garatu beharko lirateke eta metodo hori balidatu beharko litzateke gutxieneko bat fidagarritasun bat izan dezan.

Alicia Martínez Carrasco grafologoaren deklarazioa

Ertzaintzako grafologoen ondoren, Grafotec enpresako Alicia Martínez Carrasco grafologoak deklaratu du. 2009an Arabako Aldundiaren eskariz egin zuen txosteneko edukiak berretsi ditu. Ertzaintzak aurrez esandakoak gogorazi zaizkio eta puntu guztietan ados dagoela esan du. Hala ere, antzak ikusten dituela letrinoak idatzietan eta zenbait grafitoetan agertzen diren letren forman. Defentsak, pantailan erakutsi dituen adibideen bitartez, azaldu dio hainbat letra ezberdin daudela, eta beraz, esku ezberdin grafitoetan. Esate baterako, R, D, V, M... letrak era ezberdinetan idatziak. Garbi geratu da txostenak ez duela ez buru eta ez hanka. Defentsak jakinarazi dio bere txostenean eredu gisa agertzen den abecedario latinoak K.a. VI. mendekoa dela, eta grafitoak K.O. II-Vekoak, hau da, hamar bat mende berandukoak. Ez omen da gogoratzen nondik kopiatu zuen eredua.

Nolanahi ere, grafologo honen txostena ez zen “konkluyentea”. Arabako Aldundia ez zen gustura geratu txosten honekin eta *ipso facto* beste grafologo talde bat kontratatu zuen: Madalena Ezcurra eta Gregorio Rodríguez Grávalos, Lettera enpresakoak. Hauei txosten konkluyentea eskatu zitzaion. Bihar deklaratuko dute

Hona hemen Alicia Martínez Carrascoren ondorio nagusia:

«Hori dela eta, eta zuzenbidea areagotzeko, peritu honek ez du ondorioztatu behar «letrinetako» grafitoak egin dituenak aztarnategietako grafitoen zati bat edo zati handi bat ere egin duenik, nahiz eta azpimarratzen duen kointzidentzia hain berezi askok hala iradokitzen dutela, baina benetan esan dezakeena da paralelismoa esanguratsua eta harrigarria dela, besterik gabe zoriaren emaitza izateko gehiegizkoa dela ulertuta».

(4)

Gaurko saioan hondoa jo dute Eliseo Gilen aurkako isuna proposatu zuen Jaurlaritzako teknikariak eta Letterako grafologoak

Data: 2020ko otsailaren 13a

Auziaren oinarria: Fiskaltzak eta akusazio partikularrak Eliseo Gili 285.600 €ko multa jartzeko eskatzen dute 476 pieza arkeologiko kaltetzeagatik. Jaurlaritzak, Ondarearen jabeak, bakoitza 600 eurotan baloratu du.

Deklaratzen du, Teresa Izquierdo Marculetak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondare Zuzendaritzako teknikariak. Berak erabaki zituen isunaren nondik norakoak. Egin zaion galdeketa luzea galde-erantzun gutxi batzuetan laburtzen saiatuko gara.

Defentsako abokatua: Bazenuten grafitoen zerrenda edo inbentariarik 476 zirela jakiteko?

M^a Teresa Izquierdo: Ez.

DA: Orduan nola eman zenuten zifra hori?

MTI: Prentsari irakurri genuen.

DA: Ikusi zenituen baloratu beharreko piezak?

MTI: Ez, argazki batzuk bakarrik.

1. Badakizu zeramikazko piezez gain adreiluzkoak, hezurrezkoak eta beirazkoak ere badaudela?

MTI: Nik ulertu nuen gehienbat zeramikazkoak zirela.

AD: Zuk badakizu aipatutako grafito gehienak zeramika anodinoen gainean eginak daudela, hau da, zati txikiak direla? Zertan oinarrituta baloratu zenuten pieza bakoitza 600 €tan?

MTI: “Balorazio abstraktua izan zen” (sic). Garai hartan, Gipuzkoan material arkeologikoa erakusketetara eta beste museo batzuetara eraman zen, eta hori zen aseguruekin kontratatzen zen kopurua.

(Zeramikazko pieza txiki baten gainean egindako grafito bat erakusten zaio).

AD: zure ustez, pieza horrek, inskripziorik ez balu, 600 € balioko luke?

MTI: (totelka) Ez dakit ...

la soberan daude iruzkinak. Teknikaria defendatu ezin dena defendatzen saiatu da, piezen hutsaren hurrengo balio ekonomikoa benetako piezak ez balira, akusazioak nahi bezala. Gainera, argi dago ez dakiela zertan oinarrituta kalkulatu duten 476 pieza daudela. Barregarria izan da. Ostracabase delakoan (ezohiko grafito buruz ezagutzen dugun bilduma bakarra), gure kontuen arabera agertzen dira 285 zeramikan, 56 hezurrean, 27 adreiluan eta 8 beiran.

Oinarri horiekin isun astronomikoa ezarri nahi diote Eliseo Gili, 11 urteko aulki zigorraren ondoren. ¿*Quo vadis* Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundia?

Bigarrena eta “eztabaidea” AFAk kontratatutako txosten grafologikoa

Atzo jakinarazi genuenez, AFAk eskatutako lehen txostena, Alicia Martinez Carrasco grafologoarena, ez zen “eztabaidea”, ez zen Arabako Aldundiak eskatzen zuena, eta hark, *ipso facto*, bigarren txosten bat enkargatu zion, oraingo honetan

eztabidaezina, Lettera enpresari, Magdalena Ezcurra Gondra eta Gregorio Rodríguez Grávalos grafologoen. 2010. urtearen hasieran, txosten bat aurkeztu zuten, eta ondorioztatu zuten letrinario testuak eta marrazkiak eta grafitoetan agertzen direnak esku berak eginak direla, ondorio loriatsuen paragrafo batekin, literaturaren historian leku pribilegiatua merezi duena:

“Letrinako marrazkien eta letren eta milaka urteko euskarrietako marrazkien arteko komunztadurak ezartzen dira sare neuronal beretik datozen eta integrazio neuromuskular batetik eta koordinazio bisomotor bakarretik euskarriera eramandako tresna grafikoak erabiltzeagatik, eta horrek ez du esan nahi motor bakar batek esku hartu duela baino”.

AFAk 36.000 € ordainduko ditu txosten horrengatik (ikusi faktura behean).

Gaurko saiora Gregorio Rodríguez bakarrik joan da; Magdalena Ezcurrak gaixo dagoela argudiatu du. Eskema bera erabiliko dugu agerraldia laburbiltzeko:

Defentsa-abokatua:

AD: Letrinaren eta grafitoen arteko antzekotasunak bakarrik aztertu dituzue, edo baita desberdintasunak ere?

GR: Antzekotasunak bakarrik.

AD: Nola zenekiten letrinetako grafito guztiak esku berak eginak izan zirela?

GR: Aldundiak jakinarazi zigun hori.

AD: Ba al zenuten Eliseo Gil susmagarriak eskuz idatzitako testurik, kaligrafiatzko perizial guztietan egiten den bezala?

GR: Ez.

AD: Eta zergatik ez zitzaion lagin bat hartu?

GR: Orduan desberdin idazten saiatuko zelako (marmarrak aretoan).

1. Egur edo zeramikaren gainean egindako idatzi edo marrazkietarako metodo zientifikorik ba al dago?

GR: Ez, baina ezta paper edo beste euskarri batzuen gainean ere (geroago, beste galdera bati erantzunez, aitortzen du “Grafologia sasizientzia bat” dela).

AD: Grafitoen zein alderditan finkatu zarete zuek? Ulertu dudanez, euskarriaz gain, kontuan hartu behar dira erabilitako lanabesa (puntuoia, brotxa, boligrafoa), abiadura, presioa, ereduak keinuak eta erasoak eta ihesbideen azterketa ... Hori guztia kontuan hartu al duzue?

GR: Ez, letren forma bakarrik. Gainerako guztia berdina da. Letren arteko formak eta distantziak bat badatoz, gainerako guztiak ez du axola (asaldatuta). Pertsonak ez dute aldatzen idazteko edo marrazteko modua. Pertsona batek bere haurtzaroan edota helduaroan egindako marrazkiak berdinak dira egiturari dagokionez. Hori egiaztatuta dago.

Pantailan erakusten zaizkio letrinan dauden A guztiak, hogeiren bat, itxura ezberdinekoak, eta galdetzen zaio ea uste duen denak esku berekoak direla (zalantza egiten du). Letrinaren R guztiak agertzen dira. Txostenaren orrialdea erakusten zaio, non PARMIIINION jartzen duen grafitoa agertzen den. Haren arabera, R-a letrinario 24. zenbakiari dagokion R-a da. R-en artean zein den galdetzen zaio, ez baitaude zenbakituta, eta, gainera, ez dago hainbeste R. Zalantza, ez omen daki, erabat galduta. Esperimentua beste bi letrekin errepikatzen da, emaitza berarekin.

Halaber, agerian geratzen dira letren eta grafitoen marrazkiak (askoz txikiagoak hauek) alderatzeko orduan egiten dituen oreka ikaragarriak, fotoshopa erabiliz eta irudiak beren gustura handituz eta distortsionatuz, zerbaitetan bat egin dezaten.

Zalantzarik gabe, azterketa grafologiko hori Grafologiaren historiara pasako da.

Laburbilduz, Eliseo Gilen aurkako akusazio froga nagusiak erridikulo izugarria ekarri du txostenaren egile eta mentoreekiko.

(5)

***Instituto del Patrimonio Cultural de España*ko (IPCE) teknikariaren deklarazioak**

Data: 2020ko otsailaren 17a.

Gaurko saioan, J. V. Navarro Gascón-ek deklaratu du eta aurrez 2013ko bere txostenean esandakoak berretsi ditu. metal pila aurkitu omen du ildoetan zein gainazaletan, grafito-egiteko erabilitako tresnaren arrastoak, bere esanetan. Azpimarratu nahi izan du ildoetan agertzen direnak, burdina arruntaz gain, altzairu mota ezberdinak direla batik bat: (vanadio, molibdeno...); kuprita ere agertzen omen da, eta alpaka eta berunezko tresnen aztarnak ere ba omen daude, ildoak erreparatzeko erabiliak ziur asko. Abokatuak galdetu dio ea faltsutzaileak burdindegia bat ote zuen; epaileak moztu egin dio, galdera desegokia dela argudiatuz.

Ontzat eman dituen piezetan (hiru edo lau), burdina “eraldatua” omen dago denboraren poderioz, eta beste guztietan “eraldatu gabe”, eta horrek “modernoak” direla adierazten omen du. Galdetu zaio ea kontrolerako piezarik erabili duen, hau da, norberak grafito bat apropos egin eta gero mikroskopiaz aztertu, ikusteko berdinak diren honen emaitzak eta grafitoenak, beti egin ohi den bezala. Ezetz, ez omen zuen beharrezkoa ikusi. Baita garbi geratu da ontzat emandako piezak aurrez inork laborategian aztertu gabeak zirela (Cerdán, Madariaga...), eta gehienak inoiz aipatu gabeak zirela Batzordeko txostenetan.

¿Qué está pasando con Iruña-Veleia? liburuan sakon hitz egiten dugu txosten horretaz, Koenraad Van den Driessche geokimikoaren txostenetan oinarrituta. Jarraian kopiatuko dugu:

1.- Navarro txostena

Aldundia (kereila-jartzailea) eta Lurmen (kereilatua) akordio batera iritsi dira grafito kopuru esanguratsu bat aztertzeko, bai zeramikan, bai hezur eta adreiluan. 2012ko azaroaren 12an, IPCEko bi funtzionario, horien artean José Vicente Navarro Gascón, Gasteizera joaten dira eta 39 pieza aukeratzen dituzte, guztiak zeramikazkoak, hezur eta adreiluzkoak alde batera utzita. Bilketa-ekitaldian Ertzaintza eta AFAko funtzionarioak egon dira. Lurmen ez dute garaiz gonbidatu.

Txostenak urtebete baino gehiago behar du bueltan iristeko (2013-12-12), «Iruña-Veleiako aztarnategi arkeologiko erromatarreko grafitoek dituzten zeramikazko zatien analisia» du izena, eta pertsona bakar batek sinatzen du, aipatutako J. V. Navarrok, Geologian lizentziadunak. Ondorioztatzen du aztertutako 39 grafitoetatik 35 berriak direla. Beraz, «faltsuak». Hiru benetakoak dira, baina «ukituak» dituzte. Pieza bakarra da bene-benetakoa. Hura aztertzeko, ekortzeko mikroskopia elektronikoa (*mic. electrónico de barrido*) bat erabiltzen du, eta, neurri handi batean, ildoetan eta gainazaletan metalen arrastoak bilatzera mugatzen da. 25 metal ezberdin aurkitzen ditu. Txostenean ageri dira pieza guztien argazkiak, dagozkien azalpenekin.

Lurmenek Koen Van de Driessche geokimikako doktorearen «Navarro txostenaren ebaluazioa» izeneko txostenarekin erantzuten du. Laburbidu egingo dugu:

1. Zaintza-katerik ez izatea. Aipatutako piezak kereila jarri duen alderdiaren esku egon dira.

2. Ez dira kimikoki aztertu ildasketan eta gainazaletan dauden zarakarrak. Zarakar horien azpian ere ez da begiratu.
3. Ez dira nahita aztertu hezur eta adreiluzko grafitoak, datatzeko errazenak, lehenak Carbono 14ren bidez eta bigarrenak termoluminiszentzia bidez.
4. Navarrok adierazten du 25 metal desberdin aurkitu dituela 35 piezatan: burdina, altzairua, manganesoa, kromoa, nikela, banadioa, molibdenoa, alpaka, letoia, zilarra, eztainua, kobrea ... Grabaketarako egokiak ez diren beste batzuk ere sartu ditu: zinka, beruna, kuprita, urrea [1] ... Horregatik, 35 grafito egiteko 25 tresna ezberdin erabili beharko lirateke, logikatik kanpo. Kontuan izan behar da faltsutzaile batek inskripzioak ontzat eman nahiko balitu, ez lukeela inolako arazorik izango erromatar garaiko iltze bat edo beste edozein objektu ziztagarri aurkitzeko bere gaiztakeria burutzeko.
5. Aipatutako piezak esku eta prozesu askotatik pasatu dira lurretik atera zirenetik: urarekin eta xaboiarekin garbitzea eskuilak erabiliz, batzuetan metalezkoak. AFAko zaharberritze-taldearen tratamendua, batzuetan bisturi metalikoak erabiliz. Gero, argazkilarien, Batzordeko kideen, grafologoen eta abarren eskuetatik pasatu dira, eta ez da ahaztu behar nahikoa dela piezak metalezko boligrafo batekin kontaktu arin bat izatea, adibidez, mikroskopioak marka antzeman dezan. Navarrok zehazten dituen metal kantitateak oso txikiak dira gehienetan. Eta gauza jakina da gaia judizializatu ondoren ere piezek AFAn oniritzia zeukatenen esku jarraitu zutela. Kultura diputatuak 2010eko amaieran Legebiltzarrean adierazi zuen Bibatera bisitan joandakoen erregistro bat zegoela.

Esandako guztiagatik, erraz azal daiteke metal modernoek presentzia piezetan.

Gainera, kereila jarri duen alderdiaren esku egon direla kontuan hartuta, ezin da baztertu nahita kutsatuak izatea.

[1] Ertzaintzaren txostenak honako hau dio: «Nabarmendu behar da, IPCEn txostenaren arabera, pieza batzuetan urrezko partikulak antzematen zirela, ziurrenik faltsutzailearen eraztunetik zetozenak». Datu hori bat dator Eliseo Gilek «ezohiko grafitoak» agertu ziren urteetan zeraman urrezko zigiluarekin.

Zeramiken azalean urrea agertzen den 5 kasuetan, argi eta garbi dago urre ezberdinak direla. Ezin da inola ere ondorioztatu urreak urrezko eraztun berarekin zerikusia duenik, 5 urre mota desberdin baitira. Eliseoren bideoaren batean agertzen den 'urrezko zigilua' erromatar eraztun baten imitazio bat da, baina letoizkoa, Eliseo Gilek British Museumean erositakoa.

Koen Van den Driessche geokimikoak xehetasunen berri ematen du erantzun-idazkian, eta Navarroken txostenera jotzen du: «11139 piezaren kasuan zink gabeko aleazioan urre partikula bat da zilar baino kobre gutxiagorekin; 11417 piezaren kasuan, urre filiformea da; 11424aren kasuan, urre hutsa da; 12098 piezaren kasuan, urrea, zilarra, kobrea eta zinka dituen aleazioa da; 13368 piezarren kasuan, aleazio bat da non zilarrezko puskatxoak kobrezkoak baino ugariago diren eta zink gabe.

Ondorioa: ez dago inolako zantzurik pentsatzeko zeramikaren azaleko 5 urrezko aurkikuntzak nolabaiteko loturarik dutenik, eta batzuk erabat erromatar urrezkoak izan daitezkeela «.

2.- ESCRBC txostena (Escuela Superior de Conservación y Restauración de Bienes Culturales)

Arratsaldeko saioan María del Carmen Dávilak, Angel Gea García eta Marta Rodríguez deklaratu dute, Madrilgo Autonomia Erkidegoaren menpedagoen erakunde horretako kideek. Honako zifra hauek eman dituzte:

Grafitoak guztira Graf. bereziak In situ koordinatuak In situ koordinatutako ezohikoak

1.188	291	236	39
-------	-----	-----	----

Datuak garrantzitsuak dira; izan ere, Eusko Jaurlaritzak 476 hartzen ditu ezohikotzat, Eliseo Gili bakoitzeko 600 euroko isuna ezartzerakoan. Aliritzira jarritako isuna, M. Teresa Izquierdo funtzionarioak joan den ostegunean egindako agerraldian agerian utzi zuen bezala.

ESCRBCko kideek berretsi dute, pieza bat izan ezik, ez dagoela frogatuta trazabilitatea, hau da, piezak lurretik ateratzen direnetik museoan uzten diren arte ez dagoela dokumentuta haien ibilbide osoa, ez argazkien bidez, ez landa-koaderno edo beste bidez.

Defentsak galdetzen du zergatik dauden hainbeste pieza *in situ* koordinatuta. Beste zerbaitengatik izango zela erantzuten dute, ez grafitoagatik. Erantzuten zaie grafitoa duten pieza asko hutsalak direla, ez lirakeela koordinatuko grafitoa ez balute. Gero, galdetzen zaie “ezohikoak” direnetatik zenbatek duten trazabilitate garbia. Bik, erantzuten dute. Hori dela-eta, defentsak ondorioztatzen du ez dagoela trazabilitaterik ez pieza berezienik, ez pieza hutsalenik ere, eta, beraz, ez dirudiela intentzionalitaterik dagoenik.

Defentsak galdetu du ea legerik dagoen ESCRBCk proposatzen duen trazabilitate perfektua behartzen duenik. Horrela lan egitea normalena dela erantzun dute, eta 2013ko dokumentu batera jo dute. 2005ean derrigorrezko protokolorik edo legerik ba ote zegoen galdetu du defentsak. Zalantza egiten dute eta ez dakitela esaten dute.

Qué está pasando con Iruña-Veleia? liburuan txosten honetaz aritu ginen. Kopiatu egingo dugu ondoren:

Epaitegiak trazabilitateari buruzko txosten bat eskatzen dio ESCRBC Madrilgo Erkidegoaren menpeko erakundeari. Erakunde horrek 2015eko martxoan txosten bat aurkeztu du, Lurmenen landa-koadernoan eta txostenen azterketan oinarrituta, baina gaiarekin lotutako beste dokumentu asko ere aztertzen ditu. «Iruña-Veleiako grafitoek jasotako tratamenduaren egokitasun-mailari buruzko txostena» du izena. 121 orrialde ditu eta María del Carmen Dávila, Ángel Gea García eta Marta Rodríguez arkeologoek, historialariek eta zaharberritze-lanetan adituek sinatzen dute. Kontsultatu ditugun adituen arabera, azterketa sakon eta zintzoa da.

Honela planteatzen dute ikerketa:

«Darabilgun dokumentazioa aztertuta, bi galderari erantzun behar diegu: 1. Lurmen SLren esku-hartzean ezohiko grafitoak dituzten materialen trazabilitatea osoa eta egiaztagarria al da? 2. Lurmen S.L.ren zaintzapean dauden piezetan egindako tratamenduak egokiak izan al dira? «.

«Materialen trazabilitateari buruz: uste dugu materialen trazabilitatea ezin hobea dela baldin eta indusketaren dokumentu-erregistroak ahalbidetzen badigu aztertzen ari garen material bakoitzaren egoera egiaztatzea Lurmen S. L. enpresak indusketa egitean

jarraitu zuen kudeaketa-prozeduraren urrats guzti-guztietan, eta, bereziki, esku-hartze arkeologikoaren dokumentu-erregistroaren bidez egiazta dezakegunean piezak testuinguruan aurkitu zituztela, pieza eta haren grafitoa identifikatuta”.

Piezaz pieza jarraipena egin eta gero, ondorioa da grafito gehienetan ezin dela trazabilitatea frogatu, ez daudela dokumentu bidez frogatuta lurretik atera eta erregistratu eta azken argazkia atera arteko urrats guztiak. Azpimarratu da gauzak hobeto egin zitezkeela alderdi horretan, baina txostenean ez da faltsutasunaz hitz egiten. Oso interesgarria da ondorioen kapitulua:

«Finean, beti da zaila *unicum* bat egiazkotzat hartzea, hau da, aurrekaririk gabeko aurkikuntza, kasu honetan arkeologikoa, eta, gainera, garrantzi handiko inplikazioak dituen: historikoak, politikoak, erlijiosoak eta abar. Kasu batzuk eman dira Arkeologia unibertsalean, oro har, eta Espainiakoan, bereziki, sobera ezagunak, Altamirako haitzuloko labar-pinturak esate baterako, adibide bat jartzearen.

Hala ere, egoera bakarra izatearen ondorioz, aurkikuntza baten aurrekari edo paralelorik ez edukitzea erregistroko frogekin eta dokumental eztaba daezinekin eta ukaezinekin konpentsatu behar da. Lan honetan zehar egiaztatu dugu grafitoak dituzten zatien trazabilitatea ezin dela frogatu, eta jasotako tratamenduak ez duela haien osotasun fisikoa bermatu, analisiak eztaba daezinak izan daitezen beharko zuketeneurrian.

Azaldutako arrazoiengatik, azterlan honen egileek ezin dute Iruña-Veleiako grafitoen benetakotasuna bermatu aurreko epigrafean proposatutako probak egin gabe (ikerketa zabaltzeko proposamenak) [1]».

Hauek dira, laburbilduz, proposatutako froga nagusiak: 1) «Antzinako indusketetatik ateratako materialaren azterketa: Gratiniano Nietok 60ko hamarkadan eta Elorzak 70ekoan egindakoak». 2) Euskarri arkeologikoen azterketa kronologikoa eta formala: zeramika eta adreilua eta haietako epigrafiarekin duten lotura. 3) «Betegarria duten grafitien ildoen edukiaren analisia, oraindik ezin izan dena egin, lagina hartuta analisi suntsitzaileak egin ezin izan direlako».

«Aurkeztu ez den dokumentazioa aztertzea» ere proposatu dute. Hau da, eskuratu ahal ez dutenarena: argazkiak, filmazioak, landa-egunkariak, indusketaren memoriak, etab. Ikusten dugunez, ESCRBCk, bi urtez sakon sartu eta gaia aztertu ondoren, ikerketarekin jarraitzea proposatzen du eta metodoa zehazten du. Guretzat esanguratsua da ondorioetan Altamiraz oroitzea. »

- Gaurko saioan nahiko kontraesankor agertu dira elkarrekin, eta 2014an proposatutako probak ez zituztela oso beharrezko ikusten adierazi dute. Nabaria zen ikasgaia ondo ikasita zekartela. Argi geratzen ari da akusazioaren lekukoak eta perituak behar bezala koordinatuta daudela eta mezu bakar eta sendoa ematen saiatzen ari direla.

3.- Antelo txostena

Eliseo Gilen defentsak Tomas Anteloren agerraldia eskatua zuen, baina ez du lekukotza ematera etorri nahi izan. Navarrok erantzun dizkie txosten horri buruz egin zaizkion galdera batzuei. Defentsako perituek fluoreszentzia ikusten dute grafito askoren ildoetan, eta horrek patinaren jarraipena erakutsiko luke. Ezin izan da gaian sakondu, Navarrok adierazi duelako ez dela aditua gai horretan.

Jarraian, gai honi buruz *¿Qué está pasando con Iruña-Veleia?* liburuko kapitulua kopiauko dugu.

«2014-04-29an, IPCEk bigarren txosten bat bidali zuen «Irudi bidezko azterketa» izenekoa, Tomas Antelok zuzendutako sei pertsonako talde batek sinatua [2].

Funtsean, «Erradiazio ultramorea duten argazki digitalen» bidez egindako ikerketa da, FUV teknika izenekoa. Lehenik eta behin, deigarria da ez dela behin ere aipatzen Navarroren txostena, bost hilabete lehenago erakunde berak aurkeztu zuena. Bigarren, inoiz ez dela aipatzen faltsutasun edo fabrikazio egin berririk. Ez du interpretaziorik egiten, teknika horren bidez lortutako koloretako argazkietan ikusten dena deskribatu besterik ez du egiten, oso hizkuntza espezializatua erabiliz.

Susmagarria da epaitegiak defentsari zuri-beltzeko kopia bat eman izana, eta hiru urtez haren eskaerei entzungor egin izana, sumarioaren zain egon behar izan baitu koloretako txostena eskuratzeko. K. van den Driessche «Kafka zuri-beltzean» izenburua jarri zion Ama Atan 2015ean argitaratu zuen txostenari buruzko iruzkinari. Orain, koloretako kopia aztertu ondoren, baikortasunerako arrazoi asko aurkitzen ditu.

Badirudi Antelo txostena ez dela asko gustatu AFAn. Une hartako kultura diputatuak, PPko Iciar Lamarainek, horrela erantzun zion EAJko Pedro Elozegi batzarkidearen galderari, 2014-07-03ko bilkurako aktan agertzen denez:

«Duela gutxi, maiatzaren 14an, Epaitegiak beste txosten bat bidali zuen, ez daukat hemen, baina alderdi kimikoari buruzkoa zen. Idazkaritza Nagusia ez zen gai izan txosten horretan zer jartzen zuen bereizteko, Museoen Zerbitzuko Burua ere ez, eta Unibertsitateara pasatu zen, txosten horretan zetozen hitz hain tekniko horiek guztiek zer esan nahi duten balantze bat egin diezaguten. Oraingoz ez dugu balorazio hori egin, baina badakit gai horri buruzko zerbait amaitzen ari direla, bere garaian Batzorde hau osatzen zuten pertsonen artean, eta tira, nire ustez, pertsona egokiak dira txostenak zer dioen diagnostikatzeko orduan. Berriz diot, alderdi teknikoetan Aldundian ez da inor hori bereizteko gai izan».

A zer maila! Bada, badirudi oraindik ez dutela ezer «bereizi», Elosegiren galderak ez baitu erantzunik jaso, eta unibertsitateari eskatutako baloraziotik ez zen inoiz ezer gehiago jakin. Bitxia bada ere, fiskaltzak eta AFAk Batzordearentzat edo epaitegirarentzat txostenen bat egin duten peritu guztiak (hogeita hamar pertsona baino gehiago) deklaratzera deitu dituzte, salbu eta... Tomas Antelo eta haren taldeko kideak».

- Ondorioz, epaitegiak eskatutako hiru peritajeetatik bik (Antelo eta ESCRBC) ez dute faltsutasunik ondorioztatzen (ezta iradokitzen ere). Navarrok bakarrik iristen da ondorio horretara, eta goian ere hitz egin dugu bere seriotasun mailaz. Esanguratsua da Antelok eta ESCRBCk Navarro kontuan ez hartzea, nahiz eta haren txostena ezagutzen zuten.

(6)

Mikel Albisu geologoak IPCEn faltsutasunaren aldeko txostena eraitsi du

Data: 2020ko otsailaren 18a

Gaurko saioan Mikel Albisu geologoak geoteknia eta ingeneritzara dedikatzen den Barzelonako Geomar enpresarekin burututako txostena aurkeztu du .

1) **Bere lan metodoa** bederatzi zeramika zati hartzea izan da, terra sigilata modernoa, erromatar erara egina. Horietako hiruren gainean gurutze bana egin zuen iltze kamuts batekin, beste hiruren gainean kuter batekin eta beste hiruren gainean aizto batekin.

Gero, ekorketa mikroskopio batekin ('microscopio de barrido'), Navarrok IPCEn erabili zuenaren antzekoa, ildoetako itsatsita geratzen zen metala neurtu zuen. Jarraian, piezak uretan sartu zituzten, eta egun batez uretan beratu zituzten. Berriro neurtu eta gero, lerroak eskuilatu ziren eta neurketa errepikatu zen.

Zalantzan jarritako grafitoen antzik handiena duten lerroak iltze kamutsarekin egindakoak direla ondorioztatu du. Horiek kuterrarekin edota labanarekin egindakoak baino zabalagoak dira eta ez hain sakonak. Mikroskopioarekin neurtuta, iltzez egindako ildoetan itsatsitako metalaren arrasto bakoitzak 100 mikra ditu gutxi gora behera. Kuterraz egindako ildoetako arrastoek 50 mikra eta aiztoz egindako ildoetako arrastoek ere 50 bat mikra gutxi gora behera.

Pantailan erakutsi dituen espektroetan argi eta garbi ikusten ziren orban zurixkak, luzeak eta zabalak, hau da, metalezko hondarrak.



2) **Emaitza.** Gero Navarroren analisien diapositibak erakutsi ditu, non metalen presentzia puntu txikiekin agertzen den, eta horien alboetan mikroskopioak zenbaki bat sortzen duen: inoiz ez dute 20 mikra gainditzen, eta gehienak 5 eta 10 artean daude. Iltze kamustuak sortzen dituen batez besteko 100etik oso urrun. Horrek argi eta garbi erakusten du Navarrok aurkitzen dituen metal arrastoak ez direla faltsifikazio moderno baten ondorio, baizik eta zehaztu beharko den beste jatorri bat dutela.

Albisuk berretsi du Navarrok ez duela kontrol piezarik egin, hau da, ez duela berearen antzeko metodarik erabili, gero emaitzak zalantzan jarritako piezekin alderatu ahal izateko. Aztergai duguna bezalako estudio batean ezinbestekoak diren kontrol-piezak.

3) **Navarroren azpikeriak.** Bere hirugarren txostenean Navarrok ontzat ematen du SI/NO pieza, bere lehen txostenean faltsutzat eman zuena. Eta “burdina eraldatua”ren ehunka mikrako arrasto handi bat egiaztatzen du, ez du zerikusirik zalantzan jarritako piezetako mikra kopuru txikiarekin, eta Geomar laborategian iltze kamutsarekin egindako piezen arrastoei erakusten dutenaren oso antzekoa da. Ebidentzia hori gorabehera, Navarrok ez du bere jokabidea aldatzen eta soilik modernotzat jotako bi piezari ematen die “bigarren aukera”.

Fluoreszentzia (benetakotasun zantzua) erakusten duten argazkiekin ere indartu ditu bere argudioak, adibidez RIP-aren inguruko iritzi ustela, eta VITAI 12047 grafitoan agertzen diren marka biologikoak (sustraien markak?).

Aztertutako beste piezetako bat euskarazko esaldia duen 15920 da, non konkrezioek R baten buztana estaltzen duten, eta, beharbada, baita konkrezio handi baten pean egon daitezkeen hizki batzuk ere, CII letren ondoren. Ezustekoa bada ere, Navarroren txostenak berak iradokitzen du espatula batekin kentzea zarakarrak, ezkutuko grafitorik dagoen ala ez egiaztatzeko.

Azken batean, faltsukeriaren frogia nagusia eta bakarra zena, Espainiako Kultur Ondarearen Institutuko Navarro txostena, ezerezean geratu da. Hala eta guztiz ere, Fiskaltzak eta akusazioak zigorrak mantendu ez ezik handitu ere egin dituzte, beherago ikusiko dugunez.



[12396](#)

4) **Tasatzailea: “Grafitatu gabeko pieza baten balio ekonomikoa ez da 600 eurokoa, 5 eta 20 euro artekoa baizik”**

Eliseo Gilek beste bi peritu aurkeztu ditu, horietako bat antzinako gauzen tasatzailea eta arkeologian peritua den José Antonio Fernández Molina. “Grafito faltsuen” zeramiken prezioa tasatzea izan da haren helburua. Jakina denez, Eusko Jaurlaritzak 600 eurotan baloratu zuen bakoitza. Fernández Molinak urte hauetan zehar saldu diren antzeko piezen eta sorten argazki mordoa erakutsi du, guztiak euro gutxitan salduak: 5 €, 6 €..., gehienez 20 €-tan. Argi eta garbi geratu da pieza horien merkatu-balioa oso txikia dela.



5) Grafologoak: Eliseo Gilen letra eta grafitoetakoa oso desberdinak dira.

Lurmenek Javier Gorriz eta Altamira Sarabia kaligrafo perituek sinatutako perizial grafologikoa aurkeztu du. Lehenik, Eliseo Gili idazketa lagin bat hartu diote, zeramikan (modernoak, noski) 30 testu labur puntzoi batekin grabatzeko agindu diote Eliseori, prozesu osoa bideoan grabatu dute, eta gero emaitza Iruña-Veleiako grafitoekin alderatu dute, batzuk zaharrak, beste batzuk zalantzan jarriak. Eta emaitza da ez dagoela antzekotasunik. Akusazioak grafologia zuen arma bakarra Eliseo Gili faltsuketa leporatzeko, baina dagoeneko “froga” hau ia guztiz baliogabetuta zegoen Ertzaintzako kaligrafoen agerraldiarekin eta azken perizial honekin ia ezabatuta geratu da.

6) Zigor eskaerak: ez bakarrik mantendu, larriagotu ere bai

Gaurko saioaren azken ekitaldian, Fiskaltzak eta AFak Eliseo Gilen aurkako zigorrei eutsi diete (5 urte eta erdi eta zazpi eta erdi), aldaketa batzuekin: biek ala biek “dokumentuak faltsutzea” eta “omisio delitua” (ez dute gehiago zehaztu) gehitu dituzte. Kaltetutako pieza kopurua 476 izatetik 291 izatera jaitsi dute, beraz, isuna txikiagoa izango litzateke. Gilen eta Cerdanen defentsak absoluzio eskaeran mantendu dira.

Honek guztiak ez du ez buru eta ez hanka. Hitz egiteko astia izango dugu. Bihar amaituko da epaiketa, aldean alegazioekin.

(7)

Epaiketaren amaieran Eliseo Gilen abokatuak absoluzioa eskatu du ez dagoelako zantzu txikienik ere haren aurka

Data: 2020ko otsailaren 19a.

Gaur, 2020ko otsailaren 19a, amaitu da hamabi saio izan dituen epaiketa. Fiskalia, akusazio partikularra (AFA), Eliseo Gilen abokatua eta Ruben Cerdanen abokatua mintzatu dira, bakoitza 50 minutuz.

Fiskaltza eta akusazioa: elkarrekin azalduko ditugu, ia ez baitira desberdindu. Tonuan bakarrik desberdindu dira. Alvaro Delgado fiskala ez da nabarmendu, Javier Villarrubias AFAko abokatuak, berriz, oldarkor eta errespeturik gabe jokatu du tarteka. Gainera, “dokumentuak faltsutzearen delituaz” gain, “omisio delitua” sartu dute, “oso gaizki kudeatzeagatik” eta ondareari “kalte konponezina eragiteagatik”. Villarrubias iritsi da esatera Eliseo Gilek Iruña-Veleian “entretanimendu bat balitz bezala” lan egiten zuela, lan zientifiko bat egin beharrean. Erabat gaizki induskatzen zela, salaketa jarri zuten hiru arkeologoek abisatu ziotela. Faltsifikazioak oso baldarrak direla, ospearen eta irabaziaren helburua izan dutela, egiletza oso argi dagoela, grafologoen epaia eztabaida ezina izan dela (ez dituzte aipatu hondarrezko gaztelua eraitsi zuten Ertzaintzako Grafistikako arduradunak, eta deskalifikatu egin dituzte atzo egiletza ukatu zuten grafologoak). Guztia tonu harroputzean. Gero, Gorrochategui, Lakarra, Santos Yanguas eta Velazquezen txostenetatik ondorioak atera ditu, eta euskara, latina, epigrafia, inplikazio-zeinuak eta abarrekin ausartu da bere tesiak indartzeko. Lakarraren txostenaren zenbait aipamen irakurri ditu, non Lakarrak esaten duen faltsifikatzaileak 2003ko abenduan argitaratutako Luis Nuñezen “El euskera arcaico” liburua ezagutu behar zuela. Dena oso seguru dauden itxurak eginez, zalantza handiak dituzten seinale.

Eliseo Gilen defentsaren abokatua, Javier Martinez de San Vicente.

Hasten da esanez ez dela bidezkoa azken egunean bi akusazio berri aurkeztea, faltsukeria eta omisio delituak. Gainera, balizko delitu horiek preskribituta daudela, 2006koak izango liratekeelako eta 20020an gaudelako. 2005ean ez zegoela trazabilitate-araurik edo protokolorik, eta Lurmen ezin zaiola ezer leporatu zentzu horretan. I-V bezalako aztarnategi batean IPCEk orain eskatzen dituen jarraibideak aplikatuko balira, non mota guztietako milaka ebidentzia agertzen diren, eta piezak *in situ* garbitu eta katalogatu beharko balira, ezingo litzatekeela lanean aurrera egin.

1. Analitikak eta kata kontrolatuak. Gogora ekarri du Lurmen izan zela analitikak eta kata kontrolatuak epaitegian eskatu zituen eta ez Aldundia. Ekimena hartu zuela eta 2009 amaieran Londresko arkeometria etxe batekin kontaktatu zuela analitikak egiteko, eta honek egin zitezkeela erantzun zuela. Analitika plana eta aurrekontua ere zehaztu ziren. Eskaria, bere agiriekin, epaitegian aurkeztu zen baina honek ez zuen onartu.
2. **Baliogabetasuna.** Epaietaren baliogabetasuna eskatzeko hainbat arrazoi azaldu ditu, zaintza-katerik ez egoteaz gain. 1) Grafitoen faltsutasuna deklaritzen zuten ondorioak Arabako Foru Aldundiko funtzionario Félix Lopezek idatzi zituen 2008ko azaroaren 15ean, Batzordea azaroaren 19an bildu baino lau egun lehenago. Egun horretan eskatutako hamar txostenetako bat

baino ez zegoen entregatuta, gainerakoak geroago iritsi ziren, batzuk ia bi hilabete geroago. Madariagak 2011ra arte ez zituen Leioako laborategian amaitu bere analisiak. Lurmen kanporatzeko foru agindua ere aurretik idatzita zegoen. 2) Baliogabetasuna eskatzen du polizia judizialak instrukzioan egindako jardueragatik. Ikerketa egiterakoan, grafitoak faltsuak diren ziurtasunetik abiatzen da Ertzaintza eta faltsutasun-zantzu edo frogak baino ez ditu bilatzen (bide batez, ez zuen halakorik aurkitu), inoiz ere ez benetakotasun zantzuak. Adibide gisa, artxiboetan XIX. mendeko I-Vko ustezko faltsutze batzuk ez ikertzea gomendatzen du [1]. *“Azken urteetan, arkeologia mailan munduan egin den faltsifikazio larriena”* bezalako baieztapenak egiten ditu. 3) Baliogabetasuna eskatzen da preskripzioagatik. Ustezko delitu-egitateak hasi zirenetik (2005) kereila jarri arte (2009ko martxoa) hiru urte baino gehiago igaro zirelako.


3. **Eragilea.** Lurmenek 2012ra arteko kontratua zuen, eta 400.000 euroko superabita. Euskotrenen aldetik ez zeukan inolako presiorik emaitzak lortzera behartzen zuenik (agerian geratu dira hiru salatzailen gezurrak zentzu horretan); Filloy eta Gil Arabako arkeologo ospetsuenetakoak ziren. Eragile gisa ospea eta irabazia lortu nahi zutela defendatzea ezin da mantendu, akusazioak nahi duen bezala.
4. **Iruzur delitua.** Argi geratu da Lurmenek ez zuela euro bakar bat ere kobratu ‘Cerdan txostena’gatik.
5. **Indusketaren kalitatea.** Akusazioaren adierazpenei erantzunez, hau da, oso gaizki induskatzen zutela, gogoratu du Berjonek, salariatariako batek, epaiketari esan zuela Lurmenen lan egiteko modua bikaina zela, asko ikasi zuela eta oso eskertua zegoela aztarnategian lan egiteko aukera izan zuelako. Baita gogoratu zuen E. Harrisek, erregistratzeko metodo modernoaren aitak, Lurmenen lana ezagututa gero adierazi zuela Lurmenen lana goi mailakoa zela.
6. **Egiletza.** Grafologia izan da akusazioak Gil akusatzeko zuen tresna bakarra, eta behin betiko desmuntatu du, lehenago esan dugun bezala, Ertzaintza beraren sail batek.
7. **Tasazioa.** Lehen 476 ziren grafito bereziak (Jaurilaritza); orain, berriz, 291. Abokatuak uste du 600 euroko prezioari ezin zaiola eutsi, eta argi geratu zela Lurmenek aurkeztutako tasatzailearen peritu-txostenean 5 eta 20 euro arteko merkatu-balioa dutela.
8. **Faltsutasuna ala benetakotasuna.** Akusazioak Navarro txostena (IPCE) erabili du faltsutasuna frogatzen saiatzeko, metal mota ugari omen daudelako bai ildoetan bai piezen gainazalean. Azterlan horiek, ordea, kontrolerako piezarik gabe burutu dira. Navarrok metalak oso kopuru txikian aurkitzen ditu (5 eta 20 mikra artean zonalde bakoitzeko). Mikel Albisuk Bartzelonako laborategi batean egindako txostenean erakusten du, iltze kamuts batez zeramika batean ebakiak egiten badira, ildoari itsatsita geratzen den metal kopurua 100 eta 300 mikra artekoa dela. Navarrok ere antzeko kopurua aurkitzen du benetakotzat jotzen den pieza batean. Grafitoetako ebakidura ugarietan konkrezioak eta kostrak daudela, benetakotasun-zantzuak, Antelo jaunaren luminiszentzia-probetan (FUV metodoa) ere agerian geratzen den bezala. Antelo ere IPCE-koa da, baina ez da azaldu deklaratzera kereilatutako aldea saiatu den arren.

Azpimarratu du, halaber, Aldundiko zaharberritzaileek ez zutela ezer arrarorik ikusi piezetan, eta uneoro benetakotzat jo zituztela, baita Lurmenentzat lan egin zuten langile guztiek ere.

9. **Absoluzioa.** Horregatik guztiagatik Eliseo Gilen absoluzioa eskatu du. Epaia kondenatzailea balitz, “bidegabeko atzerapenagatik” beherapena aplikatzeko eskatu du, Europako jurisprudentziak dioen bezala, hamaika urteko aulki-zigorra jasan izanagatik, horrek dakarren guztiarekin.
10. **Azken hitzak.** Akusatuei azken hitzak esateko ematen zaien aukeran, Eliseok bere errugabetasuna aldarrikatu zuen, sufrikario urte luzeak gogoratu zituen eta justizia egingo den konfiantza adierazi zuen.
11. **Orain auzia epaiaren zain geratzen da.** Isabel María Díez-Pardo Hernández epaileak du hitza.

[1] “Euskal Herriko faltsifikazio arkeologikoari buruzko azterketa historikoa. ESCRBCko ikertzaile batek esan du Historiaren Erret-Akademiako bibliografian eta artxiboetan ‘urpekaritza eginez’ aurkitu dituela Iruña-Veleiako XIX. mendeko faltsifikazioen aurrekariak. Ertzaintzatik adierazten zaio epaileari kontsulta egingo diotela eta ahalik eta lasterren erantzungo diotela. Baina gai honek are polemika handiagoa sor lezakeela ere adierazten zaio, eta hain emaitza zientifiko ukaezinen aurrean (Navarroren txostenari buruz ari dira), agian piezen benetakotasunaren aldeko argudioak emateko baino ez lukeela balioko “. (Ertzaintzaren txostena I-Vri buruz).

2.- Iruña-Veleiako sententzia aztertzen



Zugazart (Gara)

(1)

Gauzatu da injustizia: 2 urte eta hiru hilabeteko zigorra Eliseo Gili, kartzelara joango ez den arren

Esan behar 72 euroko isuna ezarri diola epaileak “por una falta de daños”, akusazioak 286.000 euro eskatzen zituenean por “un delito de daños al patrimonio”. Hona hemen [EPAIA](#), EITBk argitaratua

[Correo-Diario Vasco](#)-ri eman zion epaitegiak eskusiba, beti bezala. Iruña-Veleia Argituk agiria atera zuen sententzia salatuz, [Iruña-Veleiako epaiaren aurrean: ez daitezela grafitoak suntsitzera ausartu!](#) izenburuaz. Ama Ata blogak, Koen Van den Driesscheren eskutik, [Sentencia del caso Iruña Veleia: conclusiones absurdas](#) titulatu du epaiaren puntu nagusiak jorratzen dituen sarrera. [Iruña-Veleiako azken paradoxak](#), titulatu du Iñigo Astizek Berrian, kazetariengandik atera den iruzkin ganorazko ia bakarra.

Orain arte ez dugu izan astirik, baina joango gara gaian sakontzen.

(2)

Frogarik gabe kondenatu dute Eliseo Gil

Data: [2020\(e\)ko ekainaren 15a](#)

[EPAIA](#) argitaratuta dago osorik eta irakurtzera gonbidatzen dugu interesatua dagoena. Ez naiz jurista eta hura aztertzeke orduan ñabardura askok ihes egingo didate, baina hala ere saiatuko naiz haren alderik nabarmenenak azaltzen. Eliseorengan zentratuko naiz

1.- Zigorra

Bi gauzagarik zigortu dute Eliseo Gil:

1.- ESPETXEA: **Urtebeteko kartzelaldia** “por una falta continuada contra el patrimonio histórico-cultural” (253. o.). Aldundiak **bost urte** eskatzen zituen eta Estatuko Fiskaltzak **hiru urte** “por un delito de daños al patrimonio”. Beraz, “delito”tik “falta”ra jaitsi du epaileak gertakizunaren kalifikazioa. ISUNA: **72 euro, 36 pieza** kaltetzeagatik. Aldundiak eta Fiskaltzak beren akusazioan **285.600 euro** eskatzen zituzten **476 pieza** kaltetzeagatik.

2.- ESPETXEA: **Urtebete eta hiru hilabete** “por un delito continuado de estafa en concurso con un delito continuado de falsedad en documento privado” (253. o.). Cerdánek ustez “asmatu” zituen txostenei buruzkoa da hau. Aldundiari

ORDAINDU/ITZULI behar: **12.490 euro**, Gil eta Cerdánen artean. Aldundiak eta Fiskaltzak **bi urte eta erdiko espetxea** eskatzen zuten eta **diru kopuru bera**.

Eliseo Gilek ez du kartzelara joan beharko, zigorrak bi urte baino txikiagoak direlako banaka hartuta.

NABARMENTZEKOAK: batetik, piezen balizko manipulazioaren tipifikazioa “delitu” izatetik “falta” izatera pasatu da; bestetik, akusazioak 476 “grafito berezi” kalkulatu zituen, eta bakoitza 600 eurotan baloratu. Epaiketa egunetako kronika ugarietan bakarrak izan ginen [Jaurlaritzako teknikariaren](#) agerraldi patetikoa kontatzen, “prentsan irakurrita” jakin baitzuen 476 zirela piezak, eta museo-pieza batzuen garraio-aseguruan oinarritu omen zen 600 euroko balorazioa egiteko. Madrilgo ESCRBCk grafito bereziak 476 beharrean 291 zirela ezarri zuen. Epailleak 36 hartu ditu “bakarrik” kontuan, IPCEko Navarro txostenak faltsutzat emandakoak, hain zuzen. Besteak ez direla analizatu eta beraz ezin dela haiei buruz ezer esan, dio. Zeramika-puxketa bakoitzaren prezioa, berriz, 2 eurotan baloratu du epailleak, Lurmenen peritoari arrazoia aitortuz. Lekutan daude akusazioaren 600 euroak!

2.- Frogatu al du Isabel María Díez-Pardo Hernández epailleak piezak Eliseo Gilek egin dituela?

Horrela arrazoitzen du epailleak kondena: “Nos encontramos ante ilícitos penales de resultado, en los que no es necesaria la ejecución de propia mano, siendo es posible su comisión por parte del acusado ELISEO GIL ZUBILLAGA a través de un tercero que haya realizado con su conocimiento y consentimiento, falta continuada de daños y delito continuado de falsedad documental, y aunque considero que no ha resultado probado suficientemente que el mismo hubiera realizado de propia mano los grafitos contemporáneos, sí existen indicios probatorios suficientes de que conocía, consentía y ha sido el autor mediato o inmediato de la comisión del delito y falta que nos ocupan”. (67. o.). Interesgarria Antton Erkiziak Ama Atan [“autor mediato”](#) kontzeptuaz egiten duen gogoeta.

Honengatik ezarri diote EGi urtebeteko kartzela: “... las 36 piezas arqueológicas de cerámica las que se ha aludido anteriormente, de manera que dichas piezas fueron objeto de incisiones, con las que el propio ELISEO GIL ZUBILLAGA o por los terceros a quienes éste encargó, realizaron grafitos con textos y epigrafía que simulaban tener la misma antigüedad que los propios soportes, cuando tales incisiones, y por tanto, los grafitos, son contemporáneos”. (70. o.).

Zer froga du epailleak egilea EG izan dela esateko? BATERE EZ. Gilek beti deklaratu du berak ez duela grafitorik egin, eta gainera benetakoak direla pentsatzen duela. Inork ez du inoiz ikusi grafitoak egiten. Ez diote aurkitu lantegirik, tresnarik, epostarik, telefono-deirik, zirriborrorik edo ezelako agiririk. Ertzaintzaren txostenak ez du froga txikienik eskaintzen:

“El Equipo Instructor considera que la elaboración de los “grafitos excepcionales” fue una labor compleja y continuada en el tiempo, que se pudo realizar en dos puntos, fundamentalmente: en el propio yacimiento, en ausencia de testigos, es decir, durante

las noches, fines de semana, puentes, períodos vacacionales, etc. (por ejemplo, en abril de 2006 apareció un grupo de “grafitos excepcionales” justo después del dilatado puente de San Prudencio). En su declaración policial, José Ángel APELLÁNIZ manifestó que *‘nunca vio realizar a Elíseo GIL, Idoia FILLOY o a ninguna otra persona inscripciones, alteraciones o modificaciones en los soportes hallados en el yacimiento’*. Otro grupo de piezas falsas se pudo hacer en otros lugares controlados por los autores (domicilio, local, taller, sacando a escondidas los fragmentos “vírgenes” del yacimiento, sin que nadie se percatase de ello”. (Ertzaintzaren txostena, 2015).

Beraz, epailearen IRUDIPEN hutsetan oinarritzen da kondena, eta hori ez da justua. Ezin da inor kondenatu froga barik, irudipenetan oinarrituta. “Indicios no son pruebas”, esan zuen behin baino gehiagotan Díez-Pardo epaileak berak epaiketan. Grafologia, akusazioak zuen “froga” bakarra, barregarri geratu zen epaiketan eta baztertuta geratu da. Gainera epaileak esaten du EG edo beste norbait edo norbaitzuk (“terceros”) direla egileak, Gilek aginduta, hori bai. Non daude frogak? Zeintzuk dira *hirugarren* horiek? Hamaika urteko ikerketan ez dute balizko horien arrastorik hartu.

(3)

Pertsona bakarrak sinatutako txostenean oinarritu da epailea piezen faltsutasuna aldarrikatzeko

Data: [2020\(e\)ko ekainaren 21a](#)

Jose Vicente Navarro Gascón haren izena; geologian lizentziatua eta IPCEko (Instituto del Patrimonio Cultural de España) funtzionarioa. Haren txostenari eta hitzari fede osoa eman dio epaileak, eta haren esanetan oinarrituta deklaratu ditu faltsu 36 grafitoak. M. Thomsonen eman zigun testuingurua aurreko [sarreran](#):

“Un licenciado en geología que afirmó que ni él ni nadie del IPCE tenían experiencia alguna en la metodología utilizada para datar grafitos. Que no utilizó controles de grafitos o incisiones en cerámica de edad conocida, ni antiguos ni recientes. Que no ha demostrado que el método que utilizó lo haya utilizado nadie para demostrar si un grafito es reciente o antiguo.”

Hogeita sei metal mota ezberdin aurkitu ditu Navarrok grafitoetan. Hau logikaren eta zentzunarekin haserre dago. Burdindegia osoa erabili ote zuen? Zertarako hainbeste tresna ezberdin? Faltsifikazioa egin nahi duenak ez du inolako zailtasunik erromatar garaiko iltze edo gailu metaliko bat aurkitzeko. Gainera, aipatzen dituen metal mota askok ez dute balio grabatzeko. Hemen sententziaren parrafo bat:

“El perito aprecia que, donde hay acero en las piezas, hay mucho acero; el acero común está presente en 35 de las 39 piezas, y puede corresponder a cualquier tipo de elemento cotidiano, como clavos, y además se encuentra níquel, pues se trata de un acer niquelado, que al ir rozando, se ha ido descascarillando la punta; a veces el acero

es inoxidable, y por eso es inequívocamente reciente. También ha encontrado restos de otros metales, como oro, que, en opinión del perito pudiera deberse a que manipulaba la pieza tendría un anillo de oro, y en la figura del cerdo ha encontrado rastro de plomo. Y en otras piezas ha encontrado alpaca, cobre, cinc, níquel de baja calidad, pero son metales que están inalterados, y también molibdeno, aleaciones para herramientas, así como cuprita y alteraciones de bronce.” (132. o.).

Metal horiek kopuru oso txikietan aurkitzen dira grafitoetan, eta lurretik aterata gero itsatsiak direla aldarrikatu zuen defentsak, garbitzeko orduan eta abar. Horrela jarraitzen du Thomsonek:

“... Que no ha tenido en cuenta que los grafitos han pasado por muchas manos: arqueólogos, personal que hace el lavado en el yacimiento, técnicos del museo de arqueología, miembros de la comisión que los estudiaron personalmente, grafólogos ... Pero es lo que vale para la jueza.”

Epaileak ez ditu kontuan hartu Navarro txostena eraisten duen Mikel Albisu geologoaren argudioak

Hona hemen epaiketa eguneko [kronika](#). Merezki du irakurtzea, Albisuren saioa epaiketako argigarrienetakoa izan baitzen, nahiz eta epaileak aintzat hartu ez. Laburtuz, Albisuk zeramika erromatarra imitatzen duten zeramika pusketak modernoak hartu zituen, haren gainean X bana maraztu zuen iltze batez, eta gero mikroskopia elektronikoz neurtu zituen ildoetan geratzen ziren metal arrastoak. Emaiza: 100 mikra, batenaz beste, arrasto bakoitzak, 300era ere heltzen zirelarik batzuk.

Hau azalduta gero, Navarroren analisisen diapositibak erakutsi zituen, non metalen presentzia puntu txikiekin agertzen zen, eta horien alboetan mikroskopioak zenbaki bat sortzen: inoiz ez ziren 20 mikra gainditzen, eta gehienak 5 eta 10 artean zeuden. iltze kamustuak sortzen dituen batez besteko 100etik oso urrun. Horrek argi eta garbi erakusten du Navarrok aurkitzen dituen metal arrastoak ez direla falsifikazio moderno baten ondorio, baizik eta zehaztu beharko den beste jatorri bat dutela.

Xehetasun hauek ez daude jasota sententzian, ezikusi egin ditu epaileak, amarruz eta gezurrez betetako Navarroren txostenari sinesgarritasun osoa eman dion bitartean. Egia esan, helduleku bakarra zuen Eliseo kondenatzeko, grafologia erori ondoren.

(4)

Epaileak hamaika faltsutasun-zantzu seinalatzen ditu sententzian, eta frogarik batere ez

Data: [2020\(e\)ko ekainaren 24a](#)

Epailea ondo hasten da oinarriak jartzen: *“No pueden confundirse los indicios con las sospechas. Para enervar la presunción de inocencia debemos contar con indicios probados y no con meras “probabilidades” de que el hecho haya ocurrido como señala la acusación. Una prueba indiciaria ha de partir de unos hechos (indicios) plenamente probados, pues no cabe evidentemente construir certezas sobre la base de simples probabilidades.”* (85. o.).

Baina berehala konturatzen gara printzipioen adierazpen hau erretorika hutsa dela. Hamaika **“indicio probatorio”** zerrendatzen ditu (sententziaren 98-100 o. ikus daitezke, eta [Ama Atan](#)). Horietako gehienak ez dira *indicio* izatera ere heltzen, eta gutxiago *probatorio*. Hona hemen labur-labur:

1) Eliseo Gilek zuela aztarnategiraren ardura osoa; 2 eta 3) Zenbait material kanpoan egon zela hainbat hilabetez garbitu aurretik; 4) Eliseoz gain beste batzuek ere bazituztela aztarnategiko giltzak; 6) Arkeologo batzuek ohartarera ziola Eliseori lan-metodoa aldatzeko, trazabilitatea bermatu ahal izateko (gezurra, epaiketan garbi geratu zen bezala); 7) Oscar Escribanok grafito bat egin zuela eta berehala broma bat zela aitortu, eta hala ere lanean jarraitu zuela; 9) Eliseo Gilek prentsaurrekoan aurkeztu zituela grafitoak, eta horren ondorioz eztabaida handia sortu zela adituen artean (mundu guztiak dakiena isiltzen du: EHUko hiru katedratikok bermatu zutela aurkikuntza; Knörr, Gorrochategui eta Santos-ek); 10 eta 11) Ez zitzaizela Cerdani txostenak egin izanaren agiririk eskatu; ez dagoela Cerdanek Frantzian egin omen zituen analisien frogarik.

Zantzu oso *probatorioak*, bai jauna! Zantzu gisa pisu apur bat lukeen bakarra 5.a izan liteke, grafito gehienak garbitokian ikusi zirela lehenengoz, alegia, pieza gehienek trazabilitatea ez dagoela frogatuta, hau da, pieza lurretik atera eta museo-zainen eskura heldu bitarteko bidea ez dagoela behar bezala dokumentatuta argazki bidez eta abar. Lurmenek askotan esplikatu du milaka pieza agertzen zirela indusketan, eta katalogatzeko orduan protokolo bati jarraitzen ziotela, eta haren arabera guztiz normala zela piezak garbitu arte grafitoa ez ikustea, lokatzaz eta kostraz estalita agertu ohi direlako. Ikusiak ikusi, egia da gauzak askoz hobeto egin zitezkeela, baina 2005-2006an nork pentsatu behar zuen horrelako txolopote bat sor zitekeenik aztarnategi batean?

Nolanahi ere, trazabilitatea bermatua ez egoteak ez du pieza bat faltsu bihurtzen edo eta Eliseo faltsutzaile. Arkeologia museoetan grafito asko ikusten dira, baina inoiz ez lurretik irten diren uneko argazkia. Honek susmagarri bihurtzen al ditu? Hauxe bera galdetu genion Oiaso Museoko zuzendariari (ordukoari) duela urte batzuk, eta ez zuen jakin zer erantzun.

Eta benetakotasun zantzuak, zer?

Benetakotasun zantzuak bilatzen hasita, beste hamaika aurkitu daitezke erraz asko. Epaile justu batek ez ditu aintzat hartu behar akusatuari kalte egiten dioten zantzuak soilik, mesede egiten diotenak ere baloratu behar ditu. Bistan da ez duela hori egin. Ertzaintzak ere gauza bera egin zuen instrukzio fasean. Epaiketan ertzain arduradunari galdetu zitzaionean zergatik ez zituzten kontuan hartu, eurei faltsutasun-zantzuak bakarrik ikertzeko eskatu zietela erantzun zuen. Eta lasai geratu zen.

(5)

Epailea: “Ez du RIP ipintzen”. DESCARTESen aipamenik ez

Data: [2020\(e\)ko ekainaren 26a](#)

1.- RIP. Honetan behintzat epaileak zabalik izan ditu begiak: “... resultando que, al tratar dicha pieza, la restauradora Paloma López Sebastián pudo comprobar que en la misma no pone RIP a pesar de parecerlo a simple vista, y a diferencia de lo que han manifestado otros expertos, incluyendo los peritos calígrafos de la acusación particular.” (142. o.). Faltsuketa zaleen ikonoa puskatu da epailearen eskuetatik jausita.

Paloma Lópezek eta Isabel Ortizek, Arabako Foru Aldundiko Zaharberritze Zerbitzuko teknikariek deklaratu zuten epaiketan. Egun hartako [kronika](#) zati bat kopiatzen dugu: “Biak bat etorri dira ez duela RIP jartzen, baizik eta hiru marra direla, santutasunaren ikurra, I-Vko beste pieza kristau batzuetan agertzen direnen antzekoak. Zaharberritzen ari ziren pieza tratatu zuten, mikroskopioz begiratu zioten, eta biak ondorio horretara iritsi ziren inolako zalantzarik gabe.”

2.- DESCARTES. Bestalde, Jose Manuel Tarriño arkeologoak (lekuko gisa deklaratu zuen alde biek eskatuta) gauza bera esan zuen balizko RIPi buruz, eta gaineratu ez duela DESCARTES jartzen. [Kronika](#). “Asteazkenean, hiru arkeologo salatarien ostean, Jose Manuel Tarriñok, Lurmenekin arkeologo eta marrazkilari lanak egindakoak deklaratu zuen. Arkeologo beteranoa, berrogei urte baino gehiago darama lanbidean. Bere esku egon zen grafitoen marrazketa. Oso trebea da horretan. Haren adierazpenak ez dira inon ageri, batetik berandu deklaratu zuelako (arratsaldeko bostak aldera hasi zen), eta bestetik esan zituen gehienak Lurmenen aldekoak direlako.

Hiru salatariak DESCARTES irakurtzen dute oraindik, edo behintzat horrekin ere eraso nahi izaten dute. Berak garbi esan zuen pieza hori marrazteko sakon begiratu zuela bitarteko guztiak erabiliz, eta MISCART jartzen duela. Bestalde, balizko RIP hiru marra direla jatorriz, zalantzarik gabe, eta ilusio optikoan eragina dela RIP irakurketa, gainazala zartatu delako zonalde horretan.”

DESCARTES ez du aipatu ere egiten epaiak, nahiz eta faltsuketa zaleen beste ikono bat izan eta presentzia handia eduki epaiketan. Beste gauza interesgarri asko argitu zuten bi zaharberritzaileek egun hartan, nahiz eta egun hartako albistegietan eta hurrengo eguneko egunkarietan ezer ez agertu. Hurrengo atalean zehaztuko ditugu.

(6)

Epaiketan “benetakotasun-zantzu” nabarmenak erakutsi zituzten zazpi grafito, epaileak sententzian aipatu ere egiten ez dituenak

Data: [2020\(e\)ko ekainaren 29a](#)

1.- [15656](#), IAN/VAN ZVTA euskerazko testua duena, Arkeologoen ehorzketaren gainean aurkitu zuten platera ere aipatu zuten zaharberritzaileek (goiz batez aterea eta eguerdian garbitua hainbat pertsonaren aurrean). Erabileragatik oso gastatua zegoela adierazi zuten, hainbat puskatan zegoela, paretak oso hauskorrak zirela. Abokatuak Isabel Ortizi galdetu zion ea inskripzioa berriki egin izan balitz begiratu batez antz emango litzatekeen, eta baietz erantzun zuen, faltsua balitz igarriko litzatekeela eta bere ustez grafitoa zaharra dela. Abokatuak ere galdetu dio ea prozesatzeko orduan buztingilearen marka, aurkitu zuten eta erantzun dio triangelu bikoitza aurkitu zutela, zigilua izan zitekeena. Marka hau ez zuten arkeologoen ikusi.



2.- [14469](#), VIIL(II)I(A) GORI / VIILIII NOVVA / VI(...)(A)III, adreilu gaineko grafitoak, tokiaren mapa bat adieraz lezakeena, zaharberritzera eraman zenean konkrezio asko zituen, eta letrak igartzen ziren arren, ez zen ondo irakurtzen. Lan zehatza egin zuten inskripzioa ondo ikus zedin. Defentsako abokatuak aurrekoan egindako gauza bera galdetu zuen, inskripzioa orain dela gutxi egin balitz ea begiratu batez nabarrituko litzatekeen, eta baietz erantzun du eta jarraian bere ustez grafitoa zaharra dela erantzun dio.

3.- [12396](#), OVN MIA VINCIT / AMOR. Defentsak hezur gaineko grafitoa erakutsi die teknikariei, eta galdetu die ea hezurretako letra batzuen gainean dauden hutsuneak landareen sustraiek eragindako markak izan daitezkeen. Baietz erantzun dute, nahiko ohikoa dela hezurretan horrelako arrastoak aurkitzea. Idazkuna berria balitz ea begiratu batez igarriko litzatekeen galdetu dio, eta baietz erantzun du, eta bere ustez grafitoa zaharra dela.

4.- [12047](#), VITAE. Eguneroko bizitzako marrazkiak agertzen dituen ostraka. Albisuk azaldu zuenez, sustraiei markak ageri dira ildoen gainean. Konkrezioez gain.



5.- [15920](#), NIIV XII / VRT[II] TV, III / RIIBA TV, NIIV / CII (...) Euskarazko esaldia duen grafitoa, non konkrezioek R baten buztana estaltzen duten, eta, beharbada, baita konkrezio handi baten pean egon daitezkeen letra batzuk ere, CII letren ondoren. Harrigarria bada ere, Navarroren txostenak berak iradokitzen du espatula batekin kentzea zarakarrak, ezkutuko grafitorik dagoen ala ez egiaztatzeko. Ez zen horrelakorik egin epaiketan.

6.- [15542](#), ABCDEF / GHIKLM / NOPQR / (S)TVXYZ. Abecedario osoa. Henar Cebrián eta Daniel Vallo arkeologoek atera zuten lurretik eta hantxe bertan garbitu, horixe deklaratu zuten eratzaintzaren aurrean eta epaiketan. K, Y eta Z letrak ditu, ezinezkotzat joak Batzordeko filologoen aldetik.

7.- [11420](#), LEONIDA. Xabier Reparaz arkeologoak epaiketari deklaratu zuen *Leonidas* jartzeko grafito bat ikusi zuela lurretik irteten; “Leónidas, rey de Esparta”, gaineratu zuen.

(7)

Grafologia: Eliseo kondenatzeko zuten “fropa” bakarraren porrot itzela

Data: [2020\(e\)ko uztailaren 4a](#)

Lorena Lopez de Lacalle diputatuak ideia distiratsu bat izan zuen 2009ko udaberrian: aztarnategian egiten ziren jokoetarako (*Ludi Veleienses*) erabiltzen ziren letrinetan zenbait idazki eta marrazki zeudela jakin zuenean, grafologo bat kontratatu zuen idazki horiek eta grafitoetakoak esku berak eginikoak zirela frogatzeko, Eliseorenak alegia.

1.- **Alicia Martínez Carrasco** izena. Honek 2009ko martxoan entregatu zuen txostena. Baina zoritxarrez ez zen “konkluyentea”:

“Debido a ello y para extremar la prudencia esta perito entiende que no puede concluir asegurando que la mano que ha realizado los grafitos de las “letrinas” haya realizado también parte o gran parte de la de los yacimientos, si bien insiste que muchas coincidencias tan peculiares así lo sugieren, pero lo que realmente puede afirmar es que es significativo y sorprendente el paralelismo, entendiendo que es excesivo para ser simplemente fruto del azar”.

Hori ikusirik, LLLk bigarren txosten bat eskatu zuen. Zalantzan jar daiteke legez egin ahal zuen, ordurako (2009ko uda) *sub judice* baitzegoen auzia. Lurmenek, hau ikusita, baimena eskatu zion epaitegiari eta DFari piezetara sarbidea izateko eta gauza bera egiteko baina ukatu egin zitzaion.

2.- **Magdalena Ezcurra Gondra** eta **Gregorio Rodríguez Grávalos**-ek osatzen duten *Lettera* enpresako kideek 36.000 euro kobratu zuten txostenagatik. [Lotura honetan](#) gorabehera surrealista honen xehetasunak. Ziur asko, literaturaren historiara pasatuko da grafologo hauen esaldia:

“las concordancias entre los dibujos y letras de la letrina y los de los soportes milenarios se establecen por la utilización de herramientas gráficas procedentes de una misma red neuronal y trasladadas al soporte a partir de una integración neuromuscular y de coordinación visomotora única, que no puede significar sino que ha intervenido un único motor”.

The screenshot shows the Alavanet website interface. At the top, there is a navigation bar with links like 'EUSKARA', 'Tu opinión', 'Directorio', 'Mapa del sitio', 'Enlaces de Interés', and 'FAC'. Below this is a search bar and a menu with categories: 'Ciudadanía', 'Empresas y Profesionales', 'La Diputación', 'Servicios a la ciudadanía', 'Álava', and 'Prensa y actualidad'. The main content area displays a breadcrumb trail: 'Inicio > Perfil del Contratante > Licitaciones > Adj. def. (LCSP sin modif) >'. On the left, there is a sidebar with 'Anuncios Previos' and 'Licitaciones' (including 'Licitaciones abiertas', 'Pendientes de adjudicación', 'Adj. prov. (LCSP sin modif)', 'Adj. def. (LCSP sin modif)', 'Adjudicación (LCSP modif)', and 'Formalización (LCSP modif)'). The main content area shows details for the tender 'Adj. def. (LCSP sin modif)'. The object of the contract is 'Realización de análisis caligráficos de los grafitos de Iruña-Veleia'. Other details include 'Expediente: 1701', 'Tipo Contrato: Servicios', 'Entidad: Diputación Foral de Álava', 'Departamento: Euskera, Cultura y Deportes', and 'Datos del Contrato: Félix López López de Ullibarri'. The 'Adjudicatario definitivo' is 'María Magdalena Ezcurra Gondra', and the 'Importe de adjudicación definitiva' is '31.034,48' with 'IVA: 4.965,52'. At the bottom, there is a footer with contact information and a logo for 'W3C WAI-ARIA'. The footer text reads: 'Plaza de la Provincia s/n 01001 Vitoria-Gasteiz. Tfno +34 945 181818. Fax +34 945 181754. e-mail: dfa@alava.net © Arabako Foru Aldundia - Diputación Foral de Álava, 2009'.

Fakturaren agiria. Ez dakigu Alicia M. Carrascok zenbat kobratu zuen

Magdalena Ezcurra ez zen epaiketara azaldu, gaixorik zegoela abisatuta. Lotsatuta, gure ustez. Grávalosen epaiketako deklarazioa patetikoa bezain higuingarria izan zen. [Hemen](#) irakur daiteke kronika. Hari entzunda gero, gure artean komentatu genuen zenbat errugabe egongo diren kartzeletan eskrupulurik gabeko grafologoen erruz.

3.– Ertzaintzako bi grafologok berretsi dute Grafologiak ez duela balio zeramikan edo egurrean grabaturiko idazkunen egiletza zehazteko.

2013an Ertzaintzaren Grafistika eta Dokumentoskopia Sailak, epaitegiaren eskariz, adierazpen bat egin zuen gaiaz. Hona hemen argudiaketa:

“Para intentar dilucidar policialmente la posible autoría de los ‘grafitos’ e inscripciones de la letrina, en 2013 el Juzgado Instructor solicitó Informe Pericial de cotejo grafístico a la Sección de Documentoscopia y Grafística de la Unidad de Policía Científica de la Ertzaintza. Sin embargo, el 19 de noviembre de 2013 la Jefa de Sección de Documentoscopia y Grafística remitió al Juzgado solicitante un escrito mediante el cual le comunicaba ‘la imposibilidad de la realización del estudio solicitado’ en base a las siguientes consideraciones:

- *El soporte sobre el que se encuentran las evidencias dubitadas no se trata de papel u otro material similar, sino que se trata de un soporte de tipo, cerámico; así como en el caso de la evidencia atribuida, letrina romana de madera lacada. En los dos tipos de soporte se puede ejercer diferente resistencia al ser perforado por el útil, pudiendo producirse divergencias entre los caracteres motivadas por la diferente composición de los soportes.*
- *El útil empleado en la confección de los grafitos difiere de los habitualmente empleados hoy en día; no se trata de un elemento difusor de tinta como los bolígrafos actuales, ni de un spray o una brocha de pintura, sino que se utiliza el instrumento perforar el soporte.*

- *Además de lo expuesto en los dos párrafos anteriores, el alfabeto utilizado difiere morfológicamente del utilizado actualmente, por lo que sería necesario un conocimiento muy completo de la morfología de los alfabetos que se utilizaban en la época en cuestión.*
- *El hecho de utilizar un útil perforando sobre diferentes soportes (cerámica y madera lacada) hace que no sea posible estudiar aspectos básicos de un estudio pericial grafístico, como son la velocidad, la presión, gestos tipo y el estudio de ataques y escapes.*
- *Así mismo, hay que tener en cuenta que la ausencia de estudios de este tipo redundan en la falta de validación del método científico empleado, ya que, por todo lo anteriormente expuesto, no son de aplicación algunas de las leyes fundamentales de la pericia caligráfica, por lo que se cuestiona si estaríamos ante una solicitud de estudio caligráfico o sería un nuevo tipo de estudio, con lo cual habría que desarrollar nuevas técnicas y validar el método para que tuviera una mínima fiabilidad”.*

4.- Epaileak ontzat eman du Ertzaintzaren txostena

[Hemen](#) epailetako kronikatxoa. Gainetiko puntuetan Isabel María Díez-Pardo Hernández epailearen arrazoiketa eta ebazpena negargarria izan den bezala, grafologiari dagokionean zuzen ibili dela aitortu behar. [EPAIA](#)ren 157-172 orrialdeetan datoz horri buruzkoak, irakurri nahi duenarentzat. Pare bat paragrafo ekarriko ditugu bakarrik hona.

“La parte querellante ha intentado, y ya adelanto que sin éxito, probar que los grafitos con textos y epigramas han sido elaborados de forma exclusiva por la propia mano del indicado encausado”. (157 o.)

“Dado que fueron los peritos calígrafos de la Ertzaintza, con número de carnet profesional 05614 y 14582, quienes participaron a la Jefa de Documentoscopia y Grafística la imposibilidad de llevar a cabo la pericia, comparecieron ambos peritos en el plenario, quienes expusieron la amplia formación que llevan recibiendo desde hace varios años, y corroboraron que la pericia encargada sobre los grafitos se sale del método científico, no estando desarrollados aún los métodos científicos para llevarla a cabo, pues no se puede estudiar la velocidad y la presión, y los gestos-tipo se pierden al tener que apretar para escribir en un soporte como la madera de la letrina, soporte es completamente distinto de los soportes de las piezas arqueológicas, resultando que las presiones son completamente distintas en uno y otros. (160. o.)

Eskandalu itzela: non daude garbitu gabeko 18 kaxak?

Data: [2020\(e\)ko uztailaren 22a](#)

Sarrera honekin amaitutzat ematen ditugu sententziari buruzko gogoetak. Isabel Ortiz eta Paloma López Aldundiko zaharberritzaileen deklarazioa epaiketan: 2007ko amaieran, eta susmo giroaren ondorioz, aztarnategian pieza gehiago ez garbitzeko agindu zioten Lurmeni Arabako Aldunditik. Zaharberritzaileen eskuetara zeramikaz eta abarrez betetako hogeita kaxa heldu ziren, garbitu gabe. 2008ko uda-udazkenean hasi ziren haiek garbitzen. Bi kaxa garbituta zeramatzatela, grafito berezi bat agertu zen, hegazti baten marrazkia, agian uso batena, ahoan galburua zuena (kristau ikurra, gehituko dugu guk). Aurkikuntzaren berri eman zioten diputazioari (Kultura diputatuari, etab.), **eta berehala eman zieten gehiago ez garbitzeko agindua**. Euren ustez, zeramika horiek garbitu gabe daude; ez zekiten ziur non dauden gaur egun kaxa horiek.

Larritasun ikaragarriko gaia da hau. Aldundiaren obligazioa da lehenbailehen kaxa horiek lokalizatu eta beren teknikariek ziurtasun eta berme guztiekin garbitzea. Hori egiten ez duten bitartean susmopean izango da Aldundia eta legearen kontra jotzeko bidea zabalik egongo da.

Eta orain zer?

Eliseo Gilen defentsak helegitea jarria du Arabako Audientziaren aurrean absoluzioa eskatuz eta hilabete batzuk barru jakingo da erantzuna. Aldundiak ez du helegiterik jarri, baina bai Fiskaltzak. Hedabidetan jakitera eman denez, zeramika pusketen “prezioa” bakarrik eztabaidatzen du: epaileak zeramika bakoitza bi eurotan baloratu zuen ($36 \times 2 = 72$ euroko isuna), eta fiskaltza, berriz, hasierako disparatera itzuli da: 600 euro bakoitza; ($36 \times 600 = 21.600$ euro). Mixerablea eta erridikulua!

Audientziaren ebazpena edozein delarik ere, epaiak garbi adierazten du 36 grafito berezi direla faltsutzat emanak, besteei (255) buruz ezin dela ezer esan, ez direlako analizatu. Beraz, pieza horiek libre daude, ez daude “sub judice”, eta Aldundiak eta Jaurilaritzak zientziaren eskuetan utzi ditzake, utzi behar lituzke, zientziak bere bitartekoez ebazpena eman dezan.

Gai honek soka luzea ekarriko du eta ez du merezi oraingoz xehetasunetan sartzea edo iragarpenak egitea

3.- Crónica del juicio día a día



(1)

Primera semana de juicio: las diez noticias que difícilmente encontraremos en los medios

Fecha: 8 de febrero de 2020

1. La defensa solicita la nulidad del juicio por inexistencia de cadena de custodia (las piezas han estado en manos de la parte querellante, La Diputación de Álava, y han pasado por diversas manos después de la judicialización), pero la jueza no ha concedido la nulidad.
2. Los tres arqueólogos que dejaron la excavación en 2007 y delataron a Escribano y a Gil en 2009 reconocen que siempre creyeron en la autenticidad de los grafitos mientras estuvieron trabajando. Apellániz y Crespo incluso dieron sendas entrevistas de radio después de las presentaciones, donde se explayaron sobre las excelencias de los hallazgos. Berjón manifestó que empezó a cambiar de opinión cuando leyó los informes de la Comisión en 2009.
3. Ninguna de las personas que han pasado a declarar esta semana ha manifestado que sospechara de la falsedad de los grafitos excepcionales mientras estuvo trabajando para Lurmen.
4. Existen catalogados unos 1.100 grafitos entre excepcionales y banales (unos 400 excepcionales y 700 banales). De ellos cerca del 20 % coordinados *in situ* (la proporción de excepcionales y banales es bastante similar). La tónica general de las declaraciones ha sido que los arqueólogos no vieron ni los excepcionales ni los banales, con contadísimas salvedades.
5. La mayoría de ellos declara que las piezas venían impregnadas de barro arcilloso y muchas veces concreciones, y que ello hacía muy difícil ver las inscripciones.
6. Al menos tres grafitos excepcionales fueron descubiertos al salir de la tierra o al poco tiempo, entre ellos uno en euskera. 1.- Abecedario completo, 15542, (declaración de Henar Cebrián y Daniel Vallo). Contiene las letras K, Y y Z, dadas por imposibles por varios lingüistas de la Comisión. 2.- El arqueólogo Xabier Reparaz declara haber encontrado el grafito con la inscripción LEONIDAS, “rey de Esparta”. 3.- El plato sobre un enterramiento con la inscripción IAN / VAN

ZVTA, 15565, extraído por la mañana fue lavado al mediodía en presencia de varias personas.

7. El encargado de dibujar el presunto Descartes, el arqueólogo y dibujante José Manuel Tarriño, declaró que después de observar la pieza con luz rasante y una lupa de diez aumentos, no pone Descart sino MISCART
8. El encargado de dibujar las piezas, José Manuel Tarriño, declaró que considera que existen facturas de varias manos. Existen dibujos muy precisos, miniaturas con rostros de mujer p. ej., auténticas obras de arte, donde se pueden apreciar incluso gestos de la cara. Otros, sin embargo, son de factura mucho más simple, incluso algunas bastante toscas.
9. El administrador externo de Lurmen, Iker Filloy, declaró que la firma del convenio con Euskotren no estaba en absoluto condicionado a ningún hallazgo. Que Lurmen era totalmente solvente económicamente hablando. Que la empresa sometía voluntariamente sus cuentas a una auditoría todos los años. Que el convenio con ET no era su única fuente de ingresos. También declaró que se le pagó a Cerdán íntegramente el importe de las facturas, las cuales fueron exhibidas en el juicio. No hubo ningún tipo de enriquecimiento, ya que se pagó y cobró lo mismo. Y que Cerdán no era colaborador de Lurmen. Y que por lo tanto no hubo ninguna estafa, uno de los delitos de los que se le acusa a Gil. Casualmente, apenas acudió prensa a la declaración de Filloy y su intervención no la hemos visto recogida en ningún medio, a pesar de su importancia.
10. Como anécdota, uno de los tres denunciantes recordó el dibujo de un elefante (11415), y que eso era imposible por estas latitudes. Curiosamente ese mismo día el investigador Pello Eizagirre mostraba en el blog Ama Ata el documento sobre el hallazgo en Iruña-Veleia el año 1886 de una moneda con un elefante, con el siguiente comentario: “Anverso. CAESAR. *Elefante comprimiendo con los pies una serpiente*”. (ver).

La broma de Escribano y manipula que mucho queda

Los hechos: en verano de 2005 Oscar Escribano cogió un trozo de cerámica, escribió sobre ella la palabra *Veleia*, firmó en el reverso con su sobrenombre *Txapel* (al revés, “en espejo” *lepaxT*) y la introdujo entre las piezas que estaban a punto de ser lavadas. Él mismo la sacó del lavadero, causando una enorme conmoción en el grupo, pues todavía no había aparecido ese nombre en el yacimiento. Al día siguiente Escribano reveló al grupo que había sido una broma. El enfado y la bronca por parte de la dirección fue monumental, Gil y Filloy incluso se plantearon expulsarle fulminantemente. Estuvo dos o tres días fuera, y al final no se consumó la expulsión. Se tomó como un incidente aislado, una broma de pésimo gusto, pero una broma al fin y al cabo. Bromas que por desgracia suceden en determinados ambientes, incluso en arqueología.

Cuando se judicializa el caso en 2009, los tres arqueólogos que habían abandonado la excavación, Berjón, Apellániz y Crespo, denuncian ante la jueza la broma, y tanto la Diputación como la fiscalía se querellan contra Escribano “por daños al patrimonio”. Cuando Escribano declara ante la jueza en 2009, reconoce que fue el autor de la broma, como consta en el sumario. El hecho ha sido conocido desde entonces, y ha

sido publicado en numerosos foros y en los libros de Barandiaran y Elexpuru, entre otros.

Cuando llega la hora de la petición de penas, la diputación pide tres años y nueve meses y la fiscalía tres años contra Gil y Escribano, y una multa de 286.000 euros a pagar entre ambos. Habría que recalcar un pequeño detalle que apenas se ha reseñado: Escribano es acusado no solo de la broma sino también de ser coautor junto a Gil de los grafitos excepcionales.

Antes del juicio, Escribano y su defensa negocian con fiscalía una ostensible rebaja de la condena, que queda en un año de cárcel y una sanción de seis euros por día durante un año más 600 euros de multa por “dañar una pieza”. La acusación particular también acepta el trato. Hay que reseñar que de golpe también se le exime a Escribano de la coautoría de la falsificación de los grafitos. Desde ese momento Eliseo Gil es el único acusado de ello.

Cómo se ha contado: El gran titular del inicio del juicio ha sido que Escribano ha reconocido que falsificó uno de los cuestionados grafitos, y que ello ha supuesto un enorme bombazo pues nadie se lo imaginaba. Mentira, pues no se trata de “uno de los grafitos cuestionados” y el hecho era archiconocido. El comentario generalizado fue que si ha falsificado uno pudo haber falsificado más; que como acusado no estaba obligado a decir la verdad, pero ahora que pasa a ser testigo sí está obligado, y que se esperaba con expectación su comparecencia, que podría ser definitiva para la resolución del caso. El caso es que Escribano ya declaró como testigo el martes y no sucedió nada de eso. La manipulación sobre la broma de Escribano ha sido escandalosa. Incluso medios bastante objetivos han difundido informaciones tendenciosas, queremos suponer que por ignorancia.

(2)

“No pone RIP, se trata de tres rayitas, símbolo de santidad, similares a las que aparecen en otras piezas cristianas de I-V”, han declarado Paloma López e Isabel Ortiz, técnicas del Servicio de Restauración de la Diputación Foral de Álava.

Fecha, 11 de febrero de 2020.

En la sesión de hoy martes el juicio ha dado un giro de 180 grados. La sesión de hoy martes, que ha finalizado hacia las tres de la tarde, ha dado para muchos titulares. Resumiremos primeramente las declaraciones de Paloma López e Isabel Ortiz, técnicas del Servicio de Restauración de la Diputación Foral de Álava, por cuyas manos han pasado muchos de los grafitos excepcionales. Las declaraciones de ambas han sido muy parecidas. Las reseñaremos no en orden cronológico sino en virtud de la trascendencia que les otorgamos.

Sobre grafitos concretos

1. Ambas han coincidido en que no pone RIP, sino que se trata de tres rayitas, símbolo de santidad, similares a las que aparecen en otras piezas cristianas de I-V”. Trataron la pieza en restauración, la observaron con microscopía, y ambas

llegaron a esa conclusión sin ningún tipo de duda. Lo que visto de lejos produce la impresión óptica de RIP se debe a unos desconchados situados en las dos rayas laterales. Existe otro desconchado similar en otra parte del grafito. Han aportado fotos y una recreación. (ver imágenes al final del documento)

2. Trataron también el plato que los arqueólogos hallaron sobre del enterramiento con la inscripción en euskera IAN / VAN ZVTA, 15565 (extraído una mañana, lavado al mediodía en presencia de varias personas). Manifestaron que estaba muy gastado por el uso, que se hallaba en varios fragmentos, que sus paredes eran muy frágiles. Preguntada Isabel Ortiz por el abogado si la inscripción fuera hecha recientemente se notaría a simple vista, responde que sí, para seguidamente responder a otra pregunta que en su opinión el grafito era antiguo. Se le pregunta si a la hora de procesarlo encontraron ellas en el centro la marca de alfarero, responde que encuentran un triángulo doble, que podría ser el sello. Esta marca no había sido descubierta por los arqueólogos.
3. El grafito sobre ladrillo 14468, VIIL(II)I(A) GORI / VIILIII NOVVA / VI(...)(A)III, que podría representar un mapa del lugar, cuando se llevó a restauración tenía muchas concreciones, y aunque se adivinaban las letras, no se leía bien. Hicieron un trabajo minucioso para que se viera bien la inscripción. El abogado de la defensa preguntó lo mismo que la vez anterior, si la inscripción fuera hecha recientemente se notaría a simple vista, responde que sí, para seguidamente responder a otra pregunta diciendo que en su opinión el grafito era antiguo.
4. La defensa muestra a las técnicas el grafito sobre hueso OVN MIA VINCIT / AMOR 12396, y pregunta si los vacíos que existen encima de algunas letras podrían ser marcas de raíces de plantas que se “han comido” el hueso. Responde que sí, que es bastante frecuente encontrar rastros así en huesos. Se le pregunta que si la inscripción fuera reciente se notaría a simple vista, responde que sí, para seguidamente responder a otra pregunta, diciendo que en su opinión el grafito era antiguo.

Sobre las 20 cajas de cerámicas sin lavar

A finales de 2007, y a raíz del ambiente de sospecha, se ordenó desde la Diputación de Álava que no se lavara ninguna pieza más en el yacimiento. Llegaron a manos de las restauradoras unas veinte cajas de material llenas de cerámicas, etc., sin lavar. Ellas empezaron a lavarlas en verano-otoño de 2008. Cuando llevaban lavadas dos cajas, apareció un grafito excepcional, el dibujo de un ave, quizás una paloma, con una espiga en la boca (símbolo cristiano, añadimos nosotros). Dieron aviso del descubrimiento a la diputación (Diputada de Cultura, etc.), e **inmediatamente se les dio orden de que no lavaran más**. Que ellas sepan, esas cerámicas están sin lavar (no nos ha quedado claro dónde se encuentran actualmente esas cajas).

Sobre aspectos generales

1. Ambas restauradoras se trasladaron al yacimiento para reprender al equipo porque muchas piezas llegaban demasiado lavadas a restauración y a explicarles como tenían que hacerlo. Remarcan que suele ser una práctica bastante común y que han tenido que intervenir en el mismo sentido en muchas excavaciones.

2. Vieron que se utilizaban cepillos de dientes con cerdas plásticas, no observaron cepillos metálicos. Paloma López manifestó que en algunos sitios sí ha visto utilizar brochas con cerdas metálicas. Ellas sí suelen utilizar, como último recurso, un bisturí de acero, cuando no pueden eliminar de otra manera las concreciones. De hecho, sí han usado bisturí con los grafitos excepcionales. Preguntadas si ha podido haber contaminación de metales en otro momento, por ejemplo, en el mismo yacimiento al estar en contacto con metales extraídos de la excavación, responden que indudablemente sí. Incluso en cualquier otro momento: a la hora de los análisis, por el roce con algún objeto metálico, etc.
3. Nunca tuvieron dudas sobre la veracidad de los grafitos durante los años en que Lurmen estuvo al frente de la excavación
4. En relación al interrogatorio de la Ertzaintza a ambas técnicas, manifiestan que el agente solo preguntaba sobre indicios de falsedad, nunca de veracidad, cosa que les extrañó enormemente.

Declaración de Amelia Baldeón, directora del Museo Arqueológico de Araba en ese tiempo

